



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko abenduaren 28a

162. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Akats zuzenketa (42. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu- neurri batzuk hartzeari buruzkoa

HITZAURREA

Foru lege honen helburua da ondoko lege hauen testuak aldatzea: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategina, Zerga Bereziei buruzko Foru Legea, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra, Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legea, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen Foru Legea, Kultur Mezenasgoa eta haren Zerga Pizgarriak arautzen dituen Foru Legea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarrabidea onesten dituen Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoiei buruzko Foru Legea.

Bestalde, berriz ezartzen da Saltoki Handien gaineko Zerga, haren inguruko ziurgabetasun juridikoa argitu eta gero. Komeni da gogoratzea Auzitegi Gorenak hainbat arazo prejudizial planteatu zizkiola Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari, Kataluniako, Asturiasko eta Aragoiko zergei buruz.

Gainera, Asociación Nacional de Grandes Empresas de Distribución (ANGED) elkarteak kasazio-errekurtsoa aurkeztu zion Auzitegi Gorenari, Nafarroan Saltoki Handien gaineko Zergaren kudeaketa-sistema arautzen zuen Foru Agindua- ren aurka. Ziurgabetasun juridikoko egoera horren aurrean, eta Estatuko Administrazioak ere presionatzen zuelarik zerga indargabetzeko edo saltoki guztiei (handiak nahiz txikiak) eskatzeko, Nafarroako Parlamentuak indargabetzearen aldeko hautua egin zuen.

Alabaina, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, 2018ko apirilaren 26ko epaian, lehen aipatutako arazo prejudizialak ebatzi ditu eta irizpena eman du, esanez zerga erabat egokitzen zaiola Europako araudiari eta ez dela Estatuaren laguntzat jotzeko behar. Beste alde batetik, Auzitegi Gorenak, irailaren 19ko eta, beraz, oraintsuko epaian, guztiz ezetsi du ANGED elkarteak Nafarroan Saltoki Handien gaineko Zerga kudeatzeko sistema arautzen zuen foru aginduaren aurka jarri zuen kasazio-errekurtsoa.

Beraz, ikusmira juridikoa argitu eta gero, zerga hau arautzen da indargabetu zuten unean zegoenaz bestelakotsua den araudi batekin, baina bere garaian adierazi ziren oinarri berberak aintzat hartuz: xedea izanen da azalera handiko saltokien eta merkataritza-establezimenduen ahalmen ekonomikoa kargatzea, kanpo-efektu negatiboak sortzen baitituzte, beren gain ez hartzeagatik bizitza kolektiboan eragina duten kostu ekonomiko eta sozialak; bereziki, hiriguneen ehunean eta jardueretan, lurraldearen antolamenduan, ingurumenean eta azpiegiturretan eragiten dutenak.

Munta handieneko diferentzia gisa, nabarmentzekoa da zerga berriaren zerga-egitateak barne hartzen dituela merkataritza-establezimendu handi bai individualak bai kolektiboak; horrenbestez, araubide berriak inguruabar hori aintzat hartu du,

subjektu pasiboaren eta zerga-oinarriaren zehaztapenari dagokionez.

Aipatutako arau-aldaketen asmoa da Foru Komunitateko zerga araudia gaur egungo errealitate eta egoera sozial, juridiko eta ekonomiko berrietara doitzea, beharrezkoak diren hobekuntza teknikoak halaber sartuz eta zenbait zerga-onuraren araubidea berrantolatuz, bide batez zerga-arauei buruz prozedurazko nahiz funtsezko interpretazio-auzi batzuk ebazteko helburuarekin, horren beharra erakutsi baitu, une bakoitzerako, tributu-kudeaketan metaturiko esperientziak.

Legea hamabi artikuluko eta lau azken xedapenetan egituratzen da.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, mota ezberdinetako aldaketak egiten dira. Horrela, hiru arau-aldaketari heltzen zaie, urteko mantenu-ordainketen zergapetzeari eta pentsio konpentsagarrienari buruzkoak. Aldaketa horiek halaber erartortzen dira ordena zibilean izan diren lege aldaketetatik, ezkontide-banantzeari eta dibortzioari dagokienez. Aipatu legerian onartzen da ezen, zenbait egoeratan eta baldintza batzuk betetzen direnean, ezkontideek erabakitzen ahaliko dutela elkarrekin adostutako banantzea, idazkari judizialaren aurrean hitzarmen arautzaile bat eginez, edo notarioaren aurrean sinaturiko eskritura publiko baten bidez. Banantze bat notarioaren aurreko eskritura publikoaren bidez formalizatu ahal izateak ekarri du horren ondorio fiskalak epai judizial batenekin parekatzea, interpretazio bidez. Bada, zerga-araudiko aldaketek hain zuzen ere interpretazio hori nahi dute atxiki, eta ahal den neurrian parekatu urteko mantenu-ordainketen eta konpentsazio-pentsioen trataera fiskala, bai notario baten aurrean onetsi den hitzarmen arautzaile batetik eratorriak direnean, bai erabaki judizial batetik heltzen direnean; ulerturik ezen, "erabaki judizial" esaten denean, horren barruan sarturik daudela epai eta dekretu judizialak. Xede horrekin, 7.i), 55.2 eta 59.3. artikuluko aldatzen dira.

Bigarren aldaketa-multzoak zerikusia du enpresaren planen eta helburuen garapenean eta lorpean langileen inplikazioari eta partaidetzari eman nahi zaien bultzadarekin. Honi dagokionez, esan behar da ezen aurtengo ekainaren 20an Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuela, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena nafar enpresaredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzera. Testuinguru honetan, hainbat enpresa eta elkarterekin lankidetzan zenbait proposamen aztertu dira, enpresei Nafarroako lurraldean errotzen eta finkatzen laguntzeko, deslokalizazioaren aurka borrokatzeko eta enpresetan sor litezkeen ondorentza-arazoak konpontzeko, langileek enpresaren

kapitalean parte har dezaten bultzatuz eta patenteen edo antzeko beste aktibo ukiezin batzuen lorpenean parte har dezaten eta inplika daitezen sustatuz.

Horretarako, foru legeak lau zerga onura ezarri nahi ditu PFEZen, itxura batean bereziak eta lokabeak, baina berez estuki koordinatuta daudenak:

1. Zerga-salbuespena langileak jasotzen dituen lan-etekin osagarri edo gehigarrientzat, etekin horiek sari gisa jasotzen badira hark enpresaren barruan eta lan-harreman baten esparruan aktibo ukiezinaren asmaketan parte hartzeagatik, hala nola patenteen, baliagarritasun-modeloen eta ikerketajardueretatik eratorritako software aurreratu erregistratuaren asmaketan. Salbuespenaren gehieneko eta guztizko muga 30.000 eurokoa izanen da.

2. Kasu jakin batzuetan, langileari enpresaren akzioak edo partaidetzak merkatuko ohiko prezioetik beherako prezioan ematea ez jotzea gauzazko ordainsaritzat, langileek partaidetzak erosteari buruzko 62.11 artikuluko kuotako kenkari berria aplikatzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen badira, langile bakoitzari ematen zaizkion gauzazko ordainsari guztiak urteko 20.000 euroko muga gainditzen ez duen zatian.

3. Banakako enpresa bat edo enpresa horretako akzioak eta partaidetzak enpresa horretan lan egiten duten langileei eskualdatzen dizkien pertsonaren ondare gehikuntza salbuestea. Hemen ezartzen den zerga-onura pentsatuta dago enpresen jabe izanik erretirotik gertu (60 urte edo gehiago) dauden eta ondorengotza definitua ez duten pertsonentzat. Beraz, azpimarratu behar da zerga-onura ez dagoela bereziki bideratuta enpresa jakin batean lan egiten duten langileen parte-hartzea ahalbidetzen duen edozein enpresa-salmentatara. Honakoan datza zerga-onura: joko da eskualdatzaileak ez duela ondare-gehikuntzarik edo -murriztapenik izan, noiz eta enpresa bat, edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan araututako kenkaria aplikatzekoa zaien entitateetako partaidetza guztiak edo batzuk, langileei eskualdatzen baitzaizkie. Eskuratzaileei dagokienez, beste betebeharrak edo murriztapen batzuk ezartzen dira; esaterako, azken bost urteetatik hirutan lan egin izana enpresan edo enpresa-taldea osatzen duten sozietateetako edozeinetan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko esaten duen zentzuan, eta ondorengo bost urteetan enpresa horretan lan egiten jarraitu behar izatea.

4. Kuotako kenkaria, langileak enpresako akzioak edo partaidetzak eskuratze aldera ordaindutako zenbatekoengatik. Langileak lan egiten duen enpresaren edo taldea Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duen zentzuan osatzen duten sozietateetako edozeinen akzioak eta partaidetzak eskuratze aldera ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria da.

Kenkariaren urteko zenbatekoa ezin izanen da izan urteko 1.500 euro baino gehiagokoa, edo zergaldi guztietan 6.000 euro baino gehiagokoa; emakumezkoek enpresako kapitalean daukaten partaidetzarako pizgarri berezia ematearren, ezartzen da zenbateko horiek 2.000 edo 8.000 eurokoak izanen direla, hurrenez hurren, eskuratzailerak emakumezkoa baldin bada.

Horrez gain, langileak azken bost urteetatik hirutan lan egin behar izan du enpresan edo enpresa-taldea Merkataritza Kodearen 42. artikulua zentzuan osatzen duten sozietateetako edozeinetan, eta ondorengo bost urteetan enpresa horretan lan egiten jarraitu behar du.

Kapital higiezinaren etekinei dagokienez, 25.2 artikulua bigarren paragrafoa kentzen da. Paragrafo horrek arautzen zituen ehuneko 40ko murriztapena etxebizitza-alokairutiko etekin garbi positiboek aplikatzearen nondik norakoak, alokairu horien baldintzak parekagarriak zirenean "alokairu poltsa" deritzon etxebizitzenei. Jakina denez, 25.2 artikulua ehuneko 40ko murriztapena ezartzen du NASUVINSA enpresa publikoaren bidez errentan emandako etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekin garbi positiboek gainean. Murriztapen hori bere horretan geratzen da. Aldaketak 25.2 artikulua aipatuaren bigarren paragrafoa ukitzen du. Paragrafo horrek arautzen du "alokairu poltsa" zerrendakoei parekatzeko moduko baldintzetan alokatuta dauden etxebizitzetatik datozen etekinen murriztapenaren aplikazioa. Murriztapen hori ezabatzeko arrazoia horren kudeatze-zailtasun gaindiezinetan datza. Hala, azpimarratu behar da ez dela erraza ezartzea (eta geroago egiaztatzea), zer ulertzen den "alokairu poltsa" zerrendakoekin parekagarritzat jotako baldintzatzat; izan ere, Eskubide Sozialetako Departamentuaren inolako esku-hartzerik gabe formalizatutako alokairuak dira. Gainera, horri gehitu behar zaizkio etxebizitza, geroago, alokairu poltsara sartzearen gaineko kontrolak sortzen dituen eragozpena eta arazoak (poltsan sartzea, azken finean, etxebizitzak zenbait baldintza betetzearen eta dagoen tokian horrelako etxebizitzaren premia egotearen baitan dago). Horrek denak kontrol-arazo izugarriak dakartza, eta arazo horiek ezinezko bihurtzen dute kudeaketa on bat egitea.

Aurreikuspen sozialeko sistematarako ekarpen eta laguntzen esparruan, arau-aldaketa azpimarragarria egin da. Zehaztu behar da 55.1.7 artikulua ezartzen duela aurreikuspen sozialeko sistematarako -hau da, pentsio plan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate, aurreikuspen plan aseguratua, mendekotasun aseguru, aseguru kolektibo eta antzekoetarako- eginiko ekarpenak direla-eta zerga-oinarri orokorrean eginiko murriztapenatarako gehieneko muga bateratua. Aipatu 55.1.7 artikulua horren b) letran muga berariazko eta independente bat jartzen da jadanik: 5.000 euro urteko, enpresak mendekotasun aseguru kolektiboetarako ordaintzen dituen primetarako. Arau-aldaketa datza beste muga propio eta independente bat jartzean: Urteko 3.500 euro, gizarte-aurreikuspeneko sistematarako enpresek eginiko ekarpenetarako, baldin langileei egotzitako ekarpenak badira. Gainera zehazten da, enpresa kontribuzio egotziek 3.500 eurotik goiti egiten badute, zenbateko horretatik goiti egiten dutenak kontuan hartuko direla aurreko a) letran aurreikuspen den gehieneko muga bateratua, alegia 3.500 izaera orokorarekin edo 6.000 euro 50 urte baino gehiagoko pertsonak baldira, aplikatzeko ondorioekin. Aldaketa honek esanahi sozial nabarmena dauka, langileen aldekoa, ikusi izan den oker bat zuzenduko duelako: askotan, enpresek langileen aurreikuspen sozialeko sistematarako egiten zituzten ekarpenak, lan-etekinen moduan egotzi arren, ezin zitezkeen murriztu haien zerga-oinarrietan, ezarritako mugak gainditzen zituztelako, eta horrek zergapetze bikoitzeko kasuak ekartzen ahal zituen pentsioa kobratzean. Oker hori zuzentzeko, foru legeak muga berariazko eta independente berri bat ezartzen du, esan den bezala: Enpresek aurreikuspen sozialeko sistematarako egiten dituzten ekarpenetarako urteko 3.500 euro, ekarpen horiek partaide, mutualista edo aseguratua diren langileei egotziak direnean.

Aurreikuspeneko aurrezkoa sustatzeko helburuarekin, berrinbertsioagatik beste salbuespen-mota bat ezartzen da. Hala, 65 urte baino gehiago daukaten subjektu pasiboek egiten dituzten eskualdatzeak direla-eta agertzen diren ondare gehikuntzak kargatu gabe uzten dira, baldin eta eskualdatzetik lortzen den kopuru osoa haien aldeko biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen bada, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Biziarteko errenta sei hilabeteko epean eratztea, ondare-elementua eskualdatzen denetik, eta kontratua izenpetzea subjektu pasiboaren -onuradun gisa- eta aseguru entitate baten artean.

b) Biziarteko errenta jasotzen hastea eratzten denetik urtebeteko epean. Urtebeteko edo gu-

txiagoko aldizkakotasuna eduki behar du, eta errenten urteko zenbatekoa ez jaitea ehuneko bost baino gehiago urte batetik hurrengora. Biziar-teko errentak eratzeko berrinbertitzen den gehi-
neko zenbatekoa, salbuespena aplikatzeko esku-
bidea edukiko duena, 240.000 euro da.

Kuotako kenkariei dagokionez, aipatu beharre-
koa da lan-etekinengatiko kenkaria handitu egin
dela 17.500 euroko edo gutxiagoko lan-etekinak
jasotzen dituztenentzat. Horrela, 1.400 euroko
kenkaria aplikatuko zaie 10.500 eurorainoko ete-
kin garbiei, eta 62.5.1 artikuluko b) letrako por-
tzentajea ehuneko 10eraino jaisten da, 10.501
eurotik 17.500 eurorainoko errenta-tartean kenka-
riaren beherakada murrizte aldera. Jadanik esan
den bezala, kenkaria bere horretan uzten da
17.500 euro baino gehiagoko etekin garbiak lor-
tzen dituztenentzat.

Lanagatiko kenkariaren igoera horren zentzu
berean, 11.250 eurotik 12.600 euroraino igotzen
da PFEZaren aitortpena egitera behartzen duten
urteko lan-etekin osoen zenbatekoa.

Halaber igotzen da seme-alabengatiko kenka-
riaren zenbatekoa zergaldian 30.000 euro gaindi-
tzen ez duten errentak, salbuesiak kanpo, dituz-
ten subjektu pasiboentzat.

Azken aldaketa bat azpimarratu behar da ken-
kari horri dagokionez: zenbait kasutan, epailearen
aginduz subjektu pasiboaren zaintza eta babesar-
en pean dauden pertsonak subjektu pasiboaren
ondorengoekin parekatuko dira. Estatuko araudian
jadanik sartu den aldaketa bat da, eta egokitzat
nahiz zaintza eta babesaren instituzioaren zen-
tzuaren guztiz araberakotzat jotzen da. Arau alda-
ketak ondorengo direnen kuotako kenkarian eragi-
na du, bai eta 71. artikuluko familia-unitatearen
kontzeptuan ere.

Azkenik, pertsona fisikoen errentaren gaineko
zergaren araudiari gehitzen zaio 2004ko ekitaldi-
rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko
34/2003 Foru Legearen seigarren xedapen gehi-
garrian dagoen arauketa, zeinak ezartzen baitu,
alargun-pentsioen kenkariari dagokionez, kenkaria
aldeztatik ordaintzen bada ordainketa hori
zerga itzulketa gisa hartuko dela ofiziozko it-
zulketen baldintza berberetan. Xedapen gehigarri
hori indarrean dago oraindik, baina zaharkiturik
geratu da, aipatzen duelako, Pertsona Fisikoen
Errentaren gaineko Zergari buruzko 22/1998 Foru
Legearen, indargabetuta dagoen horren 67. bis
artikuluan arautzen den alargun-pentsioen kenka-
ria. Gainera, 2004. urtetik hona, pertsona fisikoen
errentaren gaineko zergaren kuota diferentzian
beste kenkari batzuk onetsi dira, ordainketa aurre-

ratua izan dezaketenak baldintza jakin batzuk
betez gero. Horregatik erantzen zaio Pertsona
Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren testu bate-
ginari seigarren xedapen gehigarri horren edukia,
eguneratuz eta haren aplikazio-esparrua hedatuz
IV. tituluko III. kapituluan jasotzen diren kuota
diferentzialaren kenkarietara.

85. artikuluan, zeinak ofiziozko itzulketa arau-
tzen baitu, aldaketa tekniko bat egiten da, erato-
rria dena azken urteotan araudian sartu diren
kuota diferentzialaren kenkari berrietatik.

Sozietateen gaineko Zergaren eremuan bi
aldaketa-motari ekiten zaie. Alde batetik, arau
aldaketa teknikoak sartzen dira, zerga bera eta
zergaren aplikazioa hobeki ulertzeko eta argi-
tzeko, baita kudeaketa errazteko ere. Beste alde
batetik, bi zerga-onura garrantzizko doitzen dira:
I+G+b jarduerengatiko kenkaria eta zinema ekoiz-
penetan eta ikus-entzunezko serieetan inberti-
tzeagatiko kenkaria. Pizgarri horiek errazago
aplikatzeko modua bilatu nahi da, horien kontrol
egokia ezertan kaltetu gabe, eta, aldi berean, an-
tzeman diren zenbait disfuntzio zuzendu.

Turismo-ibilgailuak erabiltzearen ondoriozko
gastuen kengarritasuna norainokoa den zehazte-
ko, 23.3.e) artikulua aldatzen da. Argitzen da
ezen, ibilgailuen gastuen ehuneko 100eko kenka-
rirako, a) eta b) letretan ezartzen diren mugak
gabe, seinalatzen diren jardueretan soilik erabil-
tzen diren ibilgailuak izan behar direla; hau da,
honako hauetan: salgaiak garraiatzeko beste
ezertarako erabiltzen ez direnak; bidaiarien
garraioan erabiltzen direnak kontraprestazio baten
truke; ibilgailuen fabrikanteek probak, saiakuntzak,
erakustaldiak edo saltzeko promozioetan erabil-
tzen direnak; gidariei irakasteko zerbitzuan erabil-
tzen direnak; zaintza-lanetan erabiltzen direnak;
kontraprestazio baten truke alokatzeko jardueran
erabiltzen direnak, jarduera horretan ohikotasunez
aritzen diren entitateen bitartez; edo ordezkari edo
merkataritza-agenteen joan-etorri profesionaletan
erabiltzen direnak.

Zerga hobeki ulerrarazteko helburu berarekin,
eta halaber haren aplikazioa errazteko, 42. artiku-
lua aldatzen da. Ideia horrekin, argi utzi nahi da
zerga-oinarrien edo likidazio-oinarrien zer zenba-
tekoren gainean aplikatzen diren zenbait muga eta
baldintza.

Horrela, adibidez, enpresa txikien edo mikroen-
presen zerga-tasa kalkulatzeko, egiaztatu behar
da negozio-zifraren zenbateko garbiak zerga-oina-
rriaren ehuneko 50 gainditzen duen ala ez. Baina
sortzen den galdera da ea zerga-oinarria kalkulatu
behar ote den kooperatiben Nahitaezko Erreserba

Funtsari eginiko ordainketengatiko murriztapenak edo, kasua bada, jarduera ekintzaile batean aritzeagatiko murriztapenak aplikatu aurretik ala aplikatu ondoren. Indarrean dagoen testuarekin, likidazio-oinarria da zerga-oinarriari likidazio-oinarri negatiboengatiko eta inbertsioetarako erreserba berezia hornitzeagatiko murriztapenak aplikatzearen emaitza. Baina kooperatiba funtsari egiten zaizkion ekarpenengatiko edo jarduera ekintzaile bat egiteagatiko murriztapen horiek zerga-oinarriari aplikatzearen ondorioz ateratzen den zenbatekoak zer trataera duen ez da argi gelditzen.

Foru legeak proposatzen duen testuarekin "likidazio-oinarri" kontzeptua argitzen da, eta beraz, zerga-oinarriari edozein murriztapen aplikatu eta gero, handik ateratzen den zenbatekoa jada ez da zerga-oinarria, likidazio-oinarria baizik.

Aurrekoaren antzera, mezenasgo sozial eta kulturalaren zerga-onuren aplikazioan ere, bai eta fundazioen eta babes jardueren zerga-araubidean ere, zalantza sortzen zen ea, ehuneko 30eko muga kalkulatzeko, zerga-oinarria hartu behar ote zen, edo zerga-oinarri hori ken aipaturiko murriztapenak; hots, kooperatiben Nahitaezko Erreserba Funtsari egindako ekarpenengatiko murriztapenak edo jarduera ekintzaile bat egiteagatiko murriztapenak. Foru legeak proposatzen duen testuarekin, argi geldituko da ehuneko 30eko muga hori aplikatu behar zaiola zerga-oinarriaren zenbatekoari; hau da, inolako murriztapenik aplikatu baino lehen.

Zergaren kudeaketa argitzearen ildo berean, puntualki aldatzen da 43. artikulua, zeinean arautzen baita aurreko urteetako likidazio-oinarri negatibo murriztapena. Honetan datza aldaketa: zehaztea zerga-oinarri positiboaren ehuneko 70aren muga zerga-oinarriari aplikatuko dela deskontatu eta gero, kasua bada, kooperatiben funtsari ekarpenak egiteagatiko eta jarduera ekintzaileengatiko murriztapen aipatuak. Horixe argitzen da, halaber, 44. artikuluan, inbertsioetarako erreserba bereziaren mugari buruz.

I+G+b jarduerak egiteagatiko eta zinema ekoizpenetan eta ikus-entzunezko serieetan inbertitzeagatiko zerga-pizgarrien gaurkotzeari eta doitzeari dagokienez, gutxieneko tributazioaren kontzeptua aldatzen da. Alde horretatik, gutxieneko tributazioaren minoraziorako aukera zabaltzen da bi kasutan: indarrean dagoen 62. artikuluko I+G+b jardueren "finantzatzailearen" kenkariaren kasuan, bai eta foru legeak sartzen duen zinema ekoizpenen "finantzatzailearen" figuraren kasuan ere, 65. bis artikuluko berrian sartuta dagoena. Gutxieneko tributazioaren aldaketaren helburua da "finantzatzailea"ren figura egon dadin

Ekonomia Intereseko Taldeetako (EIT) bazkidearen baldintzen antzekoetan, askotan hori baitzen jarduera aipatuak finantzatzen zituena, edo I+G+b proiektuaren nahiz zinema-ekoizpenaren egilearen baldintzen antzekoetan. Gainera, ohartarazi behar da ezen, horrekin batera, foru legearen helburua dela galaraztea EITen figura bi zerga-pizgarri horietan erabiltzea. Hala, 87.1 artikulua aldatzen da, esanbidez galarazteko EITak erabil daitezela I+G+b jardueren (61. artikulua) eta zinema-ekoizpenen (65. artikulua) kenkarietaz baliatzeke. Murrizketa honen arrazoa da bi kenkarietaz baliatzen ahal den "finantzatzailearen" figura arautu egin dela (62. artikulua eta 65. bis artikulua berria).

Esan denaren harira, 65. bis artikulua gehitzen da, izenburu hau daukana: "Zinema-ekoizpenetan eta ikus-entzunezko serieetan parte hartzea". Horrela, zinema-ekoizpenen "finantzatzailearen" figura ezartzen da, zeina baliatzen ahal baita 65.1 artikuluan ezartzen duen zerga-pizgarriaz. Pizgarri horretara pasatzen da, xehetasun batzuk gorabehera, gaur egun 62. artikuluan I+G+b proiektuen "finantzatzailearentzat" jadanik biltzen den araubidea.

Horrez gain, I+G+b jardueretan parte hartzeagatiko aipatu kenkaria arautzen duen 62. artikuluan aldaketa bat egiten da: I+G+b proiektu baten "finantzatzaileari" proiektua finantzatzeko ordaindutako zenbatekoengatik aplikatzen ahal zaion kenkariaren muga 1,20tik 1,25era pasatzen da. Muga igotze horren helburua da 65. bis artikuluko berriak zinema ekoizpenen finantzatzailearentzat ezartzen duen 1,25eko mugarekin parekatzea, baita 87. artikuluan beste kasu batzuetarako, non Ekonomia Intereseko Taldeetako (EIT) bazkideek talde horien kenkariak baitauzkate, ezartzen duen mugarekin ere. Modu honetan, bateratu egiten da kasu hauetan guztietan foru araudiko muga, zeina beti izanen baita 1,25ekoa, egindako ekarpenen zenbatekoaren gainean.

Beste alde batetik, 65.1 artikuluan ezartzen dituen kenkarietan (espainiar zinema-ekoizpenetan inbertitzeagatikoak) eta 65.2 artikulukoetan (hirugarren ekoizle baten ekoizpenaren exekuzioagatikoak) ere, aldaketa puntualak sartu dira. Lehenik, 65.1 artikuluko kenkarian handiagotu egin da Nafarroako lurraldean egin beharreko gastuen ehunekoa: gaurko ehuneko 25etik ehuneko 40ra pasatu da. Honekin lortu nahi den helburua da Nafarroako zerga pizgarriari etekina ateratzen dieten zinema ekoizpenek gastu-portzentaje handiagoa egin dezaten Nafarroan eta, horren ondorioz, Nafarroarentzat onura ekonomiko eta zerga-itzulketara handiagoak sor daitezen. Bigarrenik, bai

65.1 artikuluko kenkarian, baita 65.2 artikulukoan ere, gehieneko kenkari-muga bat jartzen da, hiru milioi eurokoa, egindako ekoizpen bakoitzeko. Honen helburua da gehieneko muga behar bezain altua jartzea, zenbateko neurrigabeak erabiltzen dituen superproduktio batena bezalako kasuak ekiditeko.

Gainera, kenkari horrek Nafarroaren izena ezagutarazteko ere balio dezan, aplikazio-betekizun gehigarri batzuk ezartzen dira, hala nola filmaketa-ko eta Nafarroako lokalizazioetako material grafiko eta ikus-entzunezkorako irispidea baimentzea – merkataritzakoaz bestelako erabileretarako eta Nafarroa ezagutarazteko baino ez–, edo bukaerako kreditu-tituluetan aipamen jakin batzuk txertatzea.

Azkenik, neurri bat aipatu behar da, beren produktu propioak eraldaturik forma juridikoaren aldetik sozietate zibil diren familiar nekazaritza-ustiapen txikiei laguntzekoa. Nabarmenezkoa da beren produktuak eraldatzen dituzten sozietate zibilek merkataritza-xedea daukatela, eta Sozietateen gaineko Zergan tributatu behar dutela. Hala ere, bai INTIA sozietate publikoak, baita landa garapenean eskuduna den departamentuak ere, adierazi dute beharrezkoa dela nekazaritza-sozietate zibil txiki hauek askatzea Sozietateen gaineko Zergan tributatzek dakartzen gehiegizko kontabilitate- eta forma-betebeharretatik. Hori guztia, aipatu nekazaritza-sozietate zibilek elikagaitatearen antolamenduan ematen duten bultzadaren esparruan, barne harturik nekazaritza-produktuen eraldaketa eta merkaturatzea, animalien ongizatea eta nekazaritza-arloko arriskuen kudeaketa, eta azpimarra berezia jarriz lehen mailako ekoizleen lehiakortasunaren hobekuntzan, haiek nekazaritzako elikagaien kate aipatu horretan sarraraziz. Horregatik guztiagatik, hemeretzigarren xedapen gehigarri bat eransten da, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan ondorioak izanen duena, ezartze aldera nekazaritza-sozietate zibil batzuek ez daukatela merkataritza-helbururik, eta beraz, ez zaiela Sozietateen gaineko Zerga aplikatzen.. Horren ondorioz, PFEZaren errenta-egozpeneko araubidean eginen dute zerga-ordainketa.

Honakoak dira beren produktuak eraldatzen dituzten sozietate zibil horiek bete behar dituzten baldintzak:

a) nekazaritza-sozietate zibilak izatea eta lehentasunezko nekazaritza-ustiategi kalifikazioa izan dezatela, uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuak ezartzen duen moduan.

b) izena emanda egon daitezela nekazaritzako elikagaiak zuzenean saltzen dituzten operadoreen Nafarroako erroldan, zeina azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretuak arautzen duen. Helburua da nekazaritza-sozietate zibilek funtsean beren produktu propioak eralda ditzaten, gero “kanal labor” izena duen horren bidez saltzeko.

c) beren negozio-zifraren zenbateko garbia ez dadila izan 180.000 euro baino gehiagokoa.

d) bazkide guztiak Nafarroan izan daitezela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokionez, berrikuntzarik garrantzikoena da nahitaezkoa dela zerga autolikidatzea. Hala, 60. artikulua ezartzen du subjektu pasiboek, zerga aitortpena aurkezten dutenean, kasuko zerga-zorra zehaztu beharko dutela, horren autolikidazioa egin eta zerga gaitan eskuduna den departamentuko titularrak ezarritako toki, modu eta epeetan horren diru-sarrerara egin beharko dutela. Autolikidaziotik abiatuta zerga kudeatzearen betebehar horretatik eratortzen dira zergan egin diren legegintza-aldaketa gehienak.

8.a) artikuluan sartzen den aldaketak bestelako funtsatzea dauka. Artikulu horrek zergaren zerga-egitatea arautzen du. Aipatu a) letran xedatzen da zerga-egitatea dela ondasunak eta eskubideak “mortis causa” eskuratzea, jaraunspen, legatu edo oinordetzarako beste edozein tituluren bidez, baita inbentarioak eta banaketak formalizatu izan ez balira ere.

Gehitzen den zehaztapen garrantzikoa da, a) letra honek ezartzen duenaren ondorioetarako, ondasunak eta eskubideak ipso iure eskuratu direla ulertuko dela, esanbidez edo isilbidez onartu behar izan gabe, eta foru lege honen 44. artikulua-ren aplikazioa ezertan kaltetu gabe. Hau da: legedi zibilean gertatzen denaz bestera, onarpena ez da beharrezkoa izanen zerga-egitatea sor dadin, jaraunspenari uko egitea ezertan kaltetu gabe.

Lehen ere aipatu dugun Nafarroako enpresa eredu parte-hartzaile eta inklusiboaren esparruan, salbuespen bat ezartzen da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan: entitate bateko akzioak edo partaidetzak doan edo merkatuko prezio normala baino merkeago eskuratzen direnean, eskuratzailleak eta eskuratutako akzioek edo partaidetzek bete egiten dituztenean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.11 artikulua jasotzen duen kenkaria aplikatzeko baldintzak, 20.000 euroko zenbatekora arte.

Beraz, hau beste zerga neurri bat gehiago da, langileek lan egiten duten enpresako partaidetzak eskura ditzaten aldeztekoa. Gainera, beste baldintza hauek ere bete behar dira:

a) Akzioak edo partaidetzak eskuratzen dituen pertsona entitatean lan egin izana izatea, edo, kasua bada, enpresa-taldea osatzen duten sozietateetako edozeinetan, Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duen zentzuan, hiru urtez gutxienez, eskuraketa gertatu baino lehenagoko azken bost urteetan.

b) Eskuraketa edo suskripzioa egin eta gero, bere zerbitzuak entitatean ematen segi dezan, edo, kasua bada, enpresa-taldea osatzen duten sozietateetako edozeinetan, Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duen zentzuan, ondorengo bost urteetan.

c) Akzioak edo partaidetzak bost urtez edukitzea, gutxienez, ez bada langilea hil dela, kaleratu dutela, edo entitatea likidatu dela konkurtso-prozesu baten ondorioz.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrari dagokionez ere, aldaketa esanguratsua sartzen dira, sei apartatutan banatu daitezkeenak.

Lehena arau-hauste larriengatik zehapen mota zehatz bati dagokio: 76.1 artikulua bere bigarren eta hirugarren paragrafoetan arautzen duenari. Aipatu 76.1 artikulua bigarren paragrafoak ezartzen du zer zehapen jarriko diren zergapekoak ez baditu epe barnean ordaintzen berak aurkeztutako autoliquidazio batean -epe kanpo aurkeztua aurretiazko errekerimendurik gabesartutako edo erregularizatutako tributua edo konturako ordainketak, autoliquidazio hori 52.3 artikulua azken paragrafoak ezartzen dituen baldintzak bete gabe aurkeztu denean; hau da, zergapekoak ez duenean berariaz identifikatu autoliquidazioa zein zergaldi dagokion, edo autoliquidazioak beste zergaldi batzuei buruzko datuak dauzkanean. Kasu hauetan, gaurko testuaren arabera, arauhausleak, zehapen gisa, diruzko isun proporzionala ordaindu beharko du, ordaindu ez dituen zenbatekoen ehuneko 40 joko duena, 71.3 artikulua ezartzen duen murriztapenaren kalterik gabe.

Bere aldetik, 76.1 artikulua beraren hirugarren paragrafoak zehapen hauek arautzen ditu: zerga jakin baten zerga-likidazioko egintza administratiboak emateko eskuduna ez den zerga administrazioko organo batek egiten dituen errekerimenduen ondorioz irekitzen diren zerga arloko arau-hauste larriengatik zehapen prozedurak. Kasu hauetan diru-isun proporzionala 69.1 artikulua aipatzen dituen zenbatekoen ehuneko 40tik

120ra bitartekoa izanen da, 71.3 artikulua ezartzen duen murriztapena ezertan kaltetu gabe.

Hitz batez, bi kasuetan ohikoak baino zehapen txikiagoak ezartzen dira. Horretarako funtsa da nahi dela bultzatu alde zehapen errekerimendurik gabeko epe kanpoko autoliquidazioak aurkezteaz, baita errekerimendu baten ondoko aitortpen-aurkezpena ere, beti delako hobe eta errazagoa aitortutako datuak edukitzea likidazio bat egin behar denean, nahiz eta zerga-administrazioak beste datu batzuk eskueran izan edo beste irizpide batzuk erabili.

Hau guztia dela-eta, ohartarazi behar da ezen 2017. urtera arte, urte hori barne, arau-hauste larriengatik zehapenetan adostasunarengatik ehuneko 40ko murriztapena baino ez zegoela; horregatik, 76.1 artikulua bi paragrafoetako arau-hauslearentzat, beti zen hobe errekerimendurik gabeko epe kanpoko autoliquidazioa aurkeztea (horrek zehapena ez, baizik eta ehuneko 20ra arteko errekarua ekartzen zion) zera baino, errekerimendurik gabeko epe kanpoko autoliquidazioa aurkeztea 52.3 artikulua ezartzen duena urratuz (horrek ehuneko 24ko zehapena baitzekarkion; hau da, ehuneko 40ko zehapena, adostasunarengatik ehuneko 40ko murriztapenarekin).

Alabaina, 16/2017 Foru Legeak sartu zuen eta 2018. urtetik aurrera ondorioak eduki dituen berehala ordaintzeagatik ehuneko 20ko murriztapen gehigarria eta gero, logikoa da aipatu 76.1 artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoetako ehuneko 40ko minimoa igotzea, halako moldez non murriztapen guztiak bidezkoak balira (adostasunarengatik ehuneko 40 eta berehala ordaintzeagatik ehuneko 20), zehapenaren emaitza beti izanen bailitzateke ehuneko 20 baino handiagoa (errekerimendurik gabeko epe kanpo aurkezteagatik gehieneko errekarua). Arrazoi hauenengatik, zehapenaren ehuneko 40ko minimoa ehuneko 55era igo da 76.1 artikulua bi paragrafoetan.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean sartzen den bigarren aldaketak 96. artikuluar eragiten dio; artikulua horri 4. apartatu bat gehitzen zaio, tributua aukeren funtzionamendua argitzeko. Hala, xedatzen da ezen zerga-araudiaren arabera aitortpen baten aurkezpenarekin batera egin, eskatu edo uko egin beharrekoak diren aukerak ezin izanen direla geroagoko une batean zuzendu, salbu eta zuzenketa hori erregelamenduzko aitortpenaldian aurkezten bada.

Zerga araudiak eskaintzen dituen aukerak oso zabalak eta anitzak dira. Egia bada ere "aukera" kontzeptua ez dela definitzen, aitortpen bat edo

autolikidazio bat aurkeztearekin batera erabili, eskatu edo uko egin beharreko aukera desberdinak dira; horrek esan nahi du zerga-aitorpenak eduki oso zabala daukala, zergaren likidaziorako muntadun diren egintzekin: zerga-onurak aplikatzeko aukerak egitea edo zerga araudiak eskaintzen dituen aukera ezberdinen artean hautatu ahal izatea. Bada, honako hau da arau berriaren funtsa: aitorten baten aurkezpenarekin batera egin beharrekoak diren aukerak, aitortpena egiteko arauzko epearen beraren barnean baizik ezin izanen dira zuzendu.

Aldatua den hirugarren alderdia bitarteko elektronikozko jakinarazpenari buruzkoa da. Horretarako, 99.5. artikulua aldatzen da. Ezartzen da ezen zergadunari bitarteko elektronikoz egiten zaizkion jakinarazpenen araubidea administrazio arau orokorretan adierazitakoa izanen dela, erregelamenduz ezartzen diren berezitasunekin.

Jotzen da ezen administrazio arau orokorretarako igorpena egiteak (batez ere, 39/2015 eta 40/2015 legeetara), 99. artikulua 5. apartatuaren gaur egungo testuko arau orokorrak ez aldatzeaz gain, aukera ematen duela jakinarazpenari buruzko arauen oinarritzko bateratzea administrazio-esparru guztietan egiteko; zerga-esparruetan nahiz zergaz bestelakoetan.

Alde batetik, aipatu 39/2015 Legearen 14.2 artikulua jada ezartzen du pertsona juridikoek eta entitateek bitarteko elektronikokoak nahitaez erabili behar dituztela administrazio publikoekin harremanetan jartzeko. Arau hori bete beharrekoa da, halaber, nahitaezko elkargoratzea daukan lanbide-jarduera batean dihardutenentzat (notarioak, jabetza-erregistratzaileak eta merkataritzako erregistratzaileak talde honen barruan daudela ulertuko da betiere), bai eta Administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikokoak erabilia izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkarienez ere. Lege beraren 41.1 artikuluan, bestalde, erregelamenduari aukera ematen zaio jakinarazpenak elektronikoki egiteko betebeharra pertsona fisikoen multzo jakin batzuentzat ezartzeko, frogaturik dagoenean pertsona horiek, beren ahalmen ekonomiko edo tekniko, jarduera profesional edo beste arrazoi batzuentzat, irispidean eta eskueran dituztela beharrezkoak diren bitarteko elektronikokoak.

Beste alde batetik, foru legeak egiten duen erregelamendu-gaikuntzak bidea emanen du etorkizunean uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretua aldatzeko, eta horrela posible egingen du bertan behera uztea zergapekoari jakinarazpen elektronikoko sisteman sartuta dagoela posta arruntez jakinarazteko betebeharra, zeren eta aipatu 39/2015

Legeak (administrazio arau orokorra) ez baitu betebeharrak jasotzen.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean aldatzen den laugarren gauza hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian zehazten da. Xedapen horrek helburu gisa du zerrendatzea zein zerga-prozedura diren ezetsizat har daitezkeenak ezarritako gehieneko epea esanbidezko ebazpenik jakinarazi gabe igarotzeagatik.

Hala, A) letran zerrendatzen dira interesdunak eskatuta hasitako prozedurak, ezetsizat hartzen ahalko direnak sei hilabeteko epean esanbidezko ebazpenik jakinarazi ez denean; B) letrak aipatzen ditu hiru hilabeteko epean ezetsizat hartzen ahalko direnak, eta C) letrak prozeduren berezitasunak jasotzen ditu zerga berezien kasuan eta Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zergaren kasuan.

Komeni da azpimarratzea 16/2017 Foru Legeak aldaketa handiak sartu zituela Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 87. artikuluan, zeinean arautzen baitira, zerga-prozedurei dagokienez, ebazpen-epeak eta esanbidezko ebazpenik ezaren efektuak. Aipatu 87. artikulua 3. apartatuak ezartzen du ezen, lege batean kontrakoa ez bada ezartzen, interesdunak eskatuta hasitako prozeduratan epea esanbidezko ebazpenik jakinarazi gabe mugaeguneratzeak isiltasun positiboaren efektua sortuko duela. Horrek esan nahi du legez ezarri beharrekoak izanen direla interesdunaren eskariz hasitako prozedura guztiak, isiltasunaren zentzua negatiboa izanen denekoak. Interesdunak eskatuta has daitezkeen 185 zerga-prozedura baino gehiago aztertu eta zerrendatu dira. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren aldaketarekin, eta aipatu 87. artikuluan ezarritakoa betetz, zerrendatzen dira interesdunak eskatuta hasitako prozedura guztiak, zeinetan isiltasunaren zentzua negatiboa izanen baita. Salbuespenez, eta Foru Komunitateak, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, zerga berezien eremuan eta Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zergaren eremuan Estatuaren araudi bera aplikatu behar duenez, ezartzen da zerga horien prozeduratan, oro har, aintzat hartuko dela Estatuaren araudiak isiltasunaren zentzuari buruz eta esanbidezko jakinarazpena egiteko gehieneko epeari buruz ezartzen duena. Horrela, zerga honetako eragile ekonomikoek erraztu egiten zaie beren zerga-betebeharrak betetzea.

Bosgarrenik, azpimarratu behar da hogeita hamargarren xedapen gehigarri berriak Foru Komunitatearen zerga-ordenamendu juridikoan zerga-kategoria berri bat sartzen duela, aipaturik datorrena, lausoki bada ere, Konstituzioaren 31.3

artikuluak: ondare-prestazio publikoak. Araudi berriaren ezartzen denez, ondare-prestazio publiko horiek bi motakoak izan daitezke: zerga arlokoak eta zergaz bestelakoak. Zerga arlokoak zergak, tasak eta kontribuzio bereziak dira.

Beste alde batetik, zergaz bestelako ondare-prestazio publikoak ezartzen dira derrigortzez emandako zerbitzu publikoetarako, zerbitzu-emate hori zuzenean emana denean, pertsonifikazio pribatu bidez, nahiz zeharkako kudeaketa bidez. Zehazki, halako prestaziotzat joko dira eskatzen direnak obrak ustiatu edo zerbitzuak emateagatik, dela emakida-araubidean, ekonomia mistoko sozietateetan, enpresa-entitate publikoetan, osotara kapital publikoak diren sozietateetan edo zuzenbide pribatuko gainerako formuletan.

Horrela, erabiltzaileek obrak erabiltzeagatik edo zerbitzuak jasotzeagatik derrigortzez ordaintzen dituzten tarifak izaera juridikoa argitu nahi da, bai pertsonifikazio pribatu bitartezko zuzeneko kudeatze kasuetan, Administrazioaren beraren bidez, bai zeharkako kudeaketaren kasuan ere, emakida-hartzaileen bidez: zergaz bestelako ondare-prestazio publikoak izanen dira.

Azkenik, 2019ra arte luzatzen dira zerga-zorra geroratzeko edo zatikatze egin diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak, 2017an eta 2018an indarrean egon direnak.

Aldaketa txiki batzuk ere egin dira, argitze-xede hutsez, gizarte mezenasgoaren eta kultur mezenasgoaren zerga-pizgarri buruzko araudian. Hala, gizarte mezenasgoaren eta kultur mezenasgoaren onuradun diren entitateei dohaintzak egiten dizkieten Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboen zerga-onurei dagokienez, zehazten da kuotako kenkaria aplikatzen dela Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legearen 67.4 artikulua ezartzen duen mugarekin; hots, kuota likidoaren ehuneko 25eko mugarekin.

Gainera, kultur mezenasgoari buruzko foru legean irismen handiagoko aldaketa bat egiten da, ezen kultur mezenasgoaren balizko onuradun gisa sartzen dira zenbait pertsona juridiko eta helbide fiskala Nafarroan duten nortasun juridikorik gabeko halako entitateak zeinek ohikotasunez egiten baitituzte jardura artistikoak, zertarako eta pertsona fisiko diren artistekiko baldintza-berdintasunean egon daitezen, azken horiek gaur egun jadanik bai baitaukate aukera hori.

Jardura Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen Foru Legearen aldaketa batzuk sartu dira, industria-gas konprimatuen fabrikazioari buruzkoak, tributazioa egokitze aldera gas horien fabrikazioaren egungo egoera-

ra. Europar Batasunaren araudiaren aginduak betetzeko eta Estatuaren laguntzat ez dadin jo, Posta eta Telegrafoak, S.A. estatu-sozietateak daukan ehuneko 50eko murriztapena, gaur egun indarrean dagoena, kendu egin da. Era berean, eskudirua ateratzea eta erositako ondasun edo zerbitzuengatik ordaintzea batzen dituen zerbitzu konbinatuaren tributazioa arautu egin da ("casback" zerbitzua deritzona).

Azkenik, foru legeak aldaketak egiten ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoari buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legean, zenbait tasa-figura modernizatu eta erre-alitatera egokitzeko, eta tarifak eta karga-tasak beste kasu batzuetan gaurkotzeko, bat etor daitezkeen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentuen eta haren erakunde autonomoen zerbitzu-emate ezberdinen kostu berriekin.

Azken xedapenetako lehenak puntualki aldatzen du Sociedad de Desarrollo de Navarra (SODENA) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legea, SODENAK beste enpresa batzuen kapitalean parte-hartzeko dituen por-tzente- eta denbora-muga batzuk malguago egiteko.

Azken xedapenetako bigarrenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 56.a) artikulua aldatzen du, 11.250 eurotik 12.600 euroraino igotze aldera, arestian esan den bezala, urteko lan-etekin osoen zenbatekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egitera behartzen duten horien.

Azken xedapenetako hirugarrena eta laugarrena erregelamendugintzarako gaikuntzari eta foru legeak indarra hartzeari buruzkoak dira.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Bat. 7.i) artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

"i) Urteko mantenu-kuotak, gurasoengandik jasoak epailearen erabakiaren edo notario-eskrituraren ondorioz".

Bi. 7. artikulua, w) letra gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

"w) Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 39.1 artikulua lehen paragrafoan jasotzen diren aktibo ukiezinak asmatzeagatik sari gisa enpresako langileei ordaintzen zaizkien lan-etekin ohiz kanpokoak edo gehigarriak, baldintza hauek betetzen badira:

1. Etekin ohiz kanpokoan edo gehigarrien zenbatekoa idatziz jasota egotea.

2. Errenta salbuetsia jasotzen duen langilea dagokion erroldan aipatuta egotea asmatzaile edo asmakuntzaren egile bezala, eta asmakuntza egina izatea lan kontratuak indarrean iraun duen bitartean.

3. Aktibo ukiezina enpresaren jarduera ekonomikoan aplikatzea edo, ustiapena lagatzen bada edo aipatu aktiboa eskualdatzen bada, lagapen edo eskualdatze horren ondorioz sortzen diren errentek aipatu 26/2016 Foru Legearen 39. artikuluan ezartzen dena ere bete dezatela, aipatu artikuluan arautzen den murriztapenaz baliatu ahal izateko.

Gehieneko muga 30.000 eurokoa izanen da egindako asmakuntza bakoitzeko, errentak zer zergalditan jasotzen diren kontuan hartu gabe”.

Hiru. 15.2.c) artikulua, azken-aurreko paragrafoa aldatzea eta azken paragrafo bat gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Hirugarren betekizunak aipatzen duen epea ez betetzeak tributu egoera erregularizatzeko betebeharra ekarriko du, 83.4 artikulua ezartzen duen moduan”.

“Letra honetan ezartzen dena ez da aplikagarria izanen e) letran ezarritakoa aplikatu behar denean”.

Lau. 15.2 artikulua, e) letra gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“e) Sozietateek jarduneko beren langileei doan edo merkatu-prezio normala baino merkeago ematea beren akzio edo partaidetza propioak edo Merkataritza Kodeko 42. artikulua zentzuan taldea osatzen duen edozein sozietatearen akzio edo partaidetzak, langileak eta erositako akzioek edo partaidetzek bete egiten dituztenean 62.11 artikuluan biltzen den kenkaria egiteko baldintzak, halako partean non gauzazko lansariak ez duen gainditzen, langile bakoitzari ematen zaion akzio- edo partaidetza-multzorako, urteko 20.000 euroko kopurua.

62.11 artikulua ezarritako edozein baldintza urratzen bada, subjektu pasiboak bere tributu egoera erregularizatu beharko du, 83.4 artikulua ezartzen duenari jarraikiz.

Akzioen edo partaidetzen eskualdatzetik eratorritako ondare gehikuntza eta gutxiagotzeak zehazteko, kontuan hartuko da, eskuratze balorea kalkulaterakoan, ondasunezko ordainsaritzat jo ez den zenbatekoa”.

Bost. 25.2 artikuluko bigarren paragrafoa kentzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Sei. 28. artikulua, bigarren paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako balore-merkatu arautuetakoren batean negoziatorako onartu gabekoak izanda sozietateen edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreei dagokien jaulkipen-primaria banatzearen kasuan, positiboa denean akzioen edo partaidetzen funts berekietatik primaren banatze-data baino lehenago itxi zen azken ekitaldian zeukaten balioaren eta haien eskuratze-balioaren arteko diferentzia, lortutako zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatu-balio normala kapital higigarriaren etekintzat hartuko da, muga izanik aipatutako diferentzia positiboa”.

Zazpi. 39.4. a) artikulua, laugarren paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Letra honen bigarren lerroaldean xedatutakoa gorabehera, xedetzat ekarpenak itzultzea duen eta mozkin ez banatuetatik ez datorren kapital-murrizketen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan (finantza tresnen merkatuei buruzkoan) definitutako balore-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu ez diren baloreei dagokiena, balore horiek sozietateen edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, akzioen edo partaidetzen funts berekien balioaren (kapital-murrizketaren aurreko azken ekitaldi itxiari dagozkiona) eta eskuratze-balioaren arteko diferentzia positiboa denean, lortutako zenbatekoa edo jasotako ondasunen edo eskubideen merkatu-balio normala ondasun higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko da, eta muga diferentzia positibo hori izanen da”.

Zortzi. 39.4.c) artikulua, paragrafo bat gehitzea amaieran. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Letra honetan aurreikusten diren baldintzak betetzen ez badira, eskualdaketa egiten duen pertsonak bere tributu egoera erregularizatu beharko du, 83.4 artikulua ezartzen duenarekin bat”.

Bederatzi. 39.4 artikulua, e) letra gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“e) Enpresa bat, edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan araututako kenkaria aplikatzekoa zaien entitateetako partaidetza guztiak nahiz haien zati bat, enpresako langileei eskualdatzen zaienean, baldin eta baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a’) Eroslea azken bost urteetako gutxienez hirutan enpresan edo Merkataritza Kodearen 42. artikulua dioenaren arabera taldea osatzen duten sozietateetako edozeinetan lan egin izandakoa izatea. Aurrekoari dagokionez, zenbatu eginen da pertsona horiek familiarrak zaintzeko eszedentzia egoeran entitate aipatuetako edozeinetan eman duten denbora.

b’) Eskualdatzailea enpresa edo lanbide jardueran aritua izatea eskualdaketa egiten den egunaren aurreko bost urteetan gutxienez ere, edo, letra honetan aipatzen diren entitateetako partaidetzak baldin badira, eskualdatzaileak eskualdaketa egin baino bost urte lehenago eskuratuak izatea, eta eskuratzailerak edo eskuratzailerak jarraitzea eskualdatzaileak egiten duen jarduera berean edo partaidetza horiek mantentzea gutxienez bost urtez, epe horretan hiltzen badira izan ezik. Halaber, eskuratzailerak edo eskuratzailerak ez dute zilegi xedatze-egintzarik edo sozietate-eragiketarik egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eskurapen-balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete.

c’) Eskuratzailerak, b’) azpiletrak aipatzen duen bost urteko epean, segitu beharko dute beren zerbitzuak ematen taldeko entitatearen edo entitateen langile bezala.

Horri dagokionez, senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen duten aldietan ere zerbitzuak ematen ari direla joko da.

Baldintza hori ez da betegabetzat joko eskuratzailerak hiltzen badira, edo lanari uzten badiote haiei osoko edo erabateko ezintasuneko egoera bat eskurapenaren ondoren aitortzearen ondorioz, edo enpresa edo entitatea konkurtso-prozesu baten ondorioz likidatzen bada.

d’) Eskualdatzaileak hirurogei urte edo gehiagoko adina izatea edo baliaezintasun osoko nahiz baliaezintasun larriko egoeran egotea.

e’) Harik eta b’) azpiletrak aipatzen duen bost urteko mantentze-epeak iraun bitartean, eskuratzailerak bakoitzak entitatean duen zuzeneko eta zeharkako partaidetza, bere ezkontide eta aurre-

ko, ondorengo eta alboko hirugarren mailarainoko ahaideekin baterakoa, ezin izanen da % 20 baino handiagoa izan. Entitatea talde baten barruan badago, portzentaje hori bete beharko da taldekoak diren entitateetako bakoitzari dagokionez.

f’) Eskualdaketa egin zen ekitaldiari dagokion zergaren aitortpenean eskualdatzaileak Administrazioari gorabehera hori azaltzea”.

Letra honetan esaten dena ez da aplikagarria izanen akzioen eta partaidetzen eskualdatzea beren gaineko aukera eskubidea baliatuz egiten denean.

Baldin eta e) letra honetan jasotzen diren baldintzak betetzen ez badira, eskualdaketa egiten duen pertsonak bere tributu egoera erregularizatu beharko du, 83.4 artikulua ezartzen duenarekin bat”.

Hamar. 39.6.f) eta g) artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“f) Tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofiziale-takoren batean negoziatzera onarturikoak diren balore edo partaidetzen eskualdatzetik eratorriak, baldin eta eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan subjektu pasiboak balore homogeenok eskuratu baditu.

g) Finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofiziale-takoren batean negoziatzera onartuta ez dauden balore edo partaidetzen eskualdatzetik eratorriak, baldin eta eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo urtean subjektu pasiboak balore homogeenok eskuratu baditu”.

Hamaika. 43.1.a) artikulua, lehenbiziko paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“a) Sozietate nahiz erakundearen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan, finantza-tresnen merkatuari buruzkoan, definitutako balore-merkatu arautuetakoren batean negoziatzera onartuta dauden baloreena denean, gehikuntza edo murriztapena zenbatuko da erosketa-balioaren eta eskualdaketa-balioaren arteko aldearen arabera. Azken balio hori eskualdaketa burutzen den egunetan merkatu horietan duten kotizazioak ezarriko du edo, kotizazioa baino handiagoa denean, hitzartutako prezioak”.

Hamabi. 43.1.c). b') artikulua, lehen paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“b') Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan, finantza tresnen merkatuari buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako kotizazio balioa, eta, bereziki, Baloreen Merkatuari buruzko Legearen testu bateginaren 43.4 artikulua aurreikusitakoaren arabera baimendutako baloreen negoziazio sistema antolatuetako kotizazio balioa, eskualdatzearen eguneko”.

Hamahiru. 45. artikulua 3. apartatua gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“3. 65 urte baino gehiagoko adina daukaten subjektu pasiboek egiten dituzten ondare-elementuen eskualdatzeak direla-eta agertzen diren ondare-gehikuntzak kargatu gabe uzten ahal dira, baldin eta eskualdatzetik lortzen den kopuru osoa bere aldeko biziarteko errenta aseguratatu bat eratzeko erabiltzen bada, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Biziarteko errenta eratu beharko da sei hilabeteko epean, ondare-elementua eskualdatzen denetik.

Hala ere, ondare gehikuntzari atxikipena egin behar zaionean, eta eskualdatze-balioari atxikipenaren zenbatekoa kenduz emaitza gisa lortzen den kopurua osoki erabiltzen bada aipatutako sei hilabeteko epean biziarteko errenta bat eratzeko, atxikipenaren zenbatekoa biziarteko errenta eratzera bideratzeko epea luzatuko da eskualdaketa egin deneko ekitaldiaren hurrengoaren amaierara arte.

b) Biziarteko errentaren kontratua subjektu pasiboaren eta aseguru entitate baten artean sinatu beharko da. Subjektu pasiboa onuraduna izanen da.

Biziarteko errentako kontratuetan lehengoratzeko-mekanismoak ezartzen ahalko dira, edo presazioaldi ziurrak edo kontraaseguruak, biziarteko errenta eratu eta gero heriotza gertatzen den kasuetarako.

c) Biziarteko errenta urtebeteko epean jasotzen hasi beharko da eratzten denetik, urtebeteko edo gutxiagoko aldizkakotasuna eduki beharko du, eta errenten urteko zenbatekoa ez da jaitsiko ehuneko bost baino gehiago urte batetik bestebatera.

d) Apartatu honetan aurreikusten den salbuespena aplikatzeko, subjektu pasiboak aseguru-entitateari jakinarazi beharko dio ezen kontratatu den biziarteko errenta dela ondare-elementuak eskualdatzeagatik lortu den zenbatekoaren berrinbertsioa.

e) Biziarteko errenten eraketan berrinbertituz salbuespena aplikatzeko eskubidea emanen duen gehieneko eta guztizko zenbatekoa 240.000 eurokoa izanen da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada besterentzean jasotako guztizkoa baino, zergapetzetik salbuetsiko da berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare-gehikuntza lortuaren zati proportzionala bakarrik.

Baldin eta, biziarteko errenta baten eskualdatzearen zenbatekoa berrinbertitzearen ondorioz gaintu egiten bada, lehenagoko berrinbertsioak kontuan hartuta, 240.000 euroko kopurua, kopuru hau baino ez da joko berrinbertitutzat: 240.000 euroren eta lehenagoko berrinbertsioen kopuruaren arteko aldea.

Apartatu honetan ezarritakoari jarraikiz berrinbertsioa ez denean egiten besterentzea egiten den urte berean, subjektu pasiboak ondare gehikuntza lortzen den ekitaldiko zerga aitorpenean nahitaez adierazi beharko du berrinbertsioa egiteko asmoa duela, seinaturalariko baldintza eta epeetan.

f) Eratutako biziarteko errentatik eratorritako eskubide ekonomikoak guztiz edo partez aurreratzten badira, bai eta apartatu honetan jasotzen diren betekizunetako edozein urratuz gero ere, kasuko ondare gehikuntza zergapetuko da, 83.4 artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik”.

Hamalau. 55.1.7.b) artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“b) Gainera, hauek aplikatuko dira muga bereki eta independente moduan:

a') Urteko 5.000 euro, enpresek mendekotasun-aseguru kolektiboari ordaindutako primetarako; hau da, aurreko 4. zenbakiaren azken paragrafoak aipagai dituenetarako.

b') Urteko 3.500 euro, gizarte-aurreikuspeneko sistemetara enpresek eginiko ekarpenetarako, baldin eta partaideei, aseguratuei edo mutualistei egotzitako ekarpenak badira.” Zenbateko horretatik goiti egiten duten ekarpen egotziak kontuan hartuko dira aurreko a) letran aurreikusten den gehieneko muga bateratua aplikatzeko ondorioekin”.

Hamabost. 55.2. artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Konpentsazio-pentsioengatik.

Ezkontidearen alde kontzeptu honengatik ordaintzen diren kopuruak eta urteko mantenu-kuotak, epailearen erabakiz edo notario-eskrituraz subjektu pasiboaren seme-alaben alde ezartzen direnak izan ezik, eta bikotekide egonkoraren alde ordaindutako kantitate legez galdagarriak”.

Hamasei. 59.3. artikulua, lehen paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“3. Epailearen erabakiaren edo notario-eskrituraren ondorioz seme-alaben mantenurako urteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboaren kasuan, urteko kuota horien zenbatekoa likidazio-inarri orokorra baino txikiagoa bada, bereizita aplikatuko da 1. idatz-zatian aurreikusitako eskala: ordaindutako urteko mantenu-kuoten guztizko zenbatekoari alde batetik, eta gainerako likidazio-inarri orokorrari bestetik”.

Hamazazpi. 62.5. Lehen artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Lehena. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 10.500 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.400. euro.

b) 10.501 eta 17.500 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.400 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 10.501 euro, eta horren emaitza bider 0,1.

c) 17.501 eta 35.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700. euro.

d) 35.000,01 eta 50.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 35.000 euro, eta horren emaitza bider 0,02.

e) 50.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 400 euro”.

Hemezortzi. 62.9.b) c') artikulua, hirugarren paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu

pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaide ez direnak, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira. Halaber, ondorengo ahaideen parekotzat joko dira urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak bete, eta adinez nagusi izan arte edo emantzipatu arte hartzaile izan zituztenekin bizitzen jarraitzea libreki hitzartzen duten pertsonak ere. Foru dekretu horren bidez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zen. Egoera hori gizarte gaietako eskumena duen departamentuak egiaztatu behar du. Ondorengoekin halaber parekatuko dira subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean epailearen ebazpen bitartez dauden pertsonak, aurreko egoeretan ez daudenak”.

Hemeretzi. 62.9.c).a') artikulua 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“a') Hamasei urte baino gutxiagoko ondorengoak. Ondorio hauetarako, ondorengo ahaideen parekotzat joko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera dela-eta subjektu pasiboarekin lotura duten hamasei urte baino gutxiagokoak. Ondorengoekin halaber parekatuko dira subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean epailearen ebazpen bitartez dauden pertsonak, aurreko egoeretan ez daudenak”.

Hogeia. 62.11. artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“11. Kenkaria, langileek enpresako kapitalean partaidetza izateagatikoa.

a) Subjektu pasiboek zilegi izanen dute beren zerbitzuak ematen dituzteneko entitateko akzioak edo partaidetzak erosteko ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria egitea, edo enpresa-taldea Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duenaren arabera osatzen duten edozein sozietetakoak. Eroslea emakumezkoa bada portzentaje hori % 20koa izanen da.

b) Ekitaldi bakoitzean aplikatzen den kenkaria ezin izanen da 1.500 euro baino gehiagokoa izan, eroslea gizonezkoa bada, edo 2.000 euro baino gehiagokoa, emakumezkoa bada.

Aipatu mugak gaintzeagatik edo kuota-gutxiegitasunagatik kenkaririk ez duten kopuruak hurrengo lau ekitaldietan amaitzen diren zergaldietan aplikatzen ahalko dira, aipatu mugak errespetatuz.

c) Subjektu pasiboak hurrenez hurreneko ekitaldietan izanen dituen kenkarien zenbatekoen

baturak ez dira izanen 6.000 euro baino gehiagokoak, gizonezkoen kasuan, eta 8.000 euro baino gehiagokoak, emakumezkoak badira.

d) Kenkaria egin ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Langileak entitatean lan egin izana, edo enpresa taldea osatzen duten edozein sozietatean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duen zentzuan, erosketa egin aurreko bost urteetako hirutan, gutxienez ere.

Erosketa edo suskripzioa egin eta gero, langileak bere zerbitzuak entitatean ematen segituko du, edo, kasua bada, enpresa taldea osatzen duten sozietateetako edozeinetan, Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duen zentzuan, ondorengo bost urteetan. Baldintza hori ez litzateke betegabetzat joko baldin eta langilea hilko balitz, ezintasun osoaren edo erabatekoaren ondorioz lan egiteari utziko balio, kaleratuko balute edo konkurtso-prozedura baten ondorioz enpresa likidatuko balitz.

Zenbaki honetan biltzen diren epeak kontatzeko orduan, lanean emandako alditzat joko dira langileak senitartekoaren zainketarako eszedentziako egoeran entitate horietakoren batean eman dituen denboraldiak.

2. Akzioek edo partaidetzak izan behar dute halako entitateetakoak non, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 8.2 artikulua ezartzen duenaren arabera, ez baitira ondare-entitateetatik jotzen.

3. Akzioak edo partaidetzak ez dira inongo merkatu araututan negoziatziorako onartuta egon.

4. Kenkarirako eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak bost urtez eduki beharko dira, gutxienez, ez bada langilea hil dela, kaleratu dutela, edo entitatea likidatua izan dela konkurtso-prozedura baten ondorioz.

5. Aurreko 4. zenbakiak aipatzen duen epean zehar, langile bakoitzak entitatean izanen duen zuzeneko eta zeharkako partaidetza, bere emazte, arbaso, ondorengo eta hirugarren mailarainoko alboko senitartekoarenarekin batera, ezin izanen da % 20 baino handiagoa izan. Entitatea talde baten barruan badago, portzentaje hori bete beharko da taldekoak diren entitateetako bakoitzari dagokionez.

6. Apartatu honetan esaten dena ez da aplikagarria izanen akzioen eta partaidetzen eskualdatzea beren gaineko aukera-eskubidea baliatuz egiten denean.

Atal honetan ezartzen den kenkaria aplikatzeko betebeharrak ez betetzeak ekarriko du, subjektu pasiboarentzat, bere tributu egoera erregularizatzeko betebeharra, 83.4 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik”.

Hogeita bat. 71.1. artikulua, azken paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Aurreko a), b) eta c) letretan aurreikusitakoaren ondorioetarako, seme-alaben parekotzat joko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera tarteko direla subjektu pasiboarekiko lotura duten pertsonak”. Seme-alabekin halaber parekatuko dira epailearen aginduz subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean dauden pertsonak, aurrekoen bestelako egoeretan daudenak”.

Hogeita bi. 75. artikulua. 1. eta 2. arau bereziak kentzea. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Hogeita hiru. 78.9.B.a).b’) artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“b’) Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EB. Zuzentarauaren babespeko inbertsio kolektiboko erakundeak izatea”.

Hogeita lau. 83. artikuluar 4. apartatua gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“4. Zerga-oinarrian edo kuotan salbuespenak, kenkariak edo edozein zerga-pizgarri izateko eskubidea, aplikatu beharreko araudian eskatutako betekizunak betetzeari baldintzaturik egonena da.

Salbuespen, kenkari edo zerga-pizgarria aplikatu ondoren horiez baliatzeko eskubidea galtzen bada, zergadunak hau ere ordaindu beharko du, betekizun edo baldintzak betetzen ez diren zergaldiko kuotarekin batera: aplikatutako salbuespen, kenkari edo zerga-pizgarriari dagokion kuota osoa, berandutze-interesak gehituta”.

Hogeita bost. 85. artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“85. artikulua. Ofiziozko itzulketa.

1. Hurrenez hurren 66. artikuluen b), d), e) eta f) letretan aipatu diren atxikipenen, konturako diru-sarreraren, ordainketa zatikatuen eta kuoten batura, bai eta, kasua bada, IV. tituluaren III. kapituluaren jasotzen diren kuota diferentzialerako kenkariena ere, handiagoa bada epearen barrenean

aurkeztutako autolikidazioaren kuota baino, zerga gaietan eskuduna den departamentuak, kasu bada, behin-behineko likidazioa eginen du aitorpena aurkezteko epea bukatu eta ondoko sei hilabeteetan.

Egindako itzulketaren diru-kopurua eta subjektu pasiboak aitorpen-likidazioan edo autolikidazioan eskatutakoa kopuru bera baldin badira, ez da likidazio hori egin beharrik izanen.

Aitorpena epez kanpo aurkeztuz gero, aurreko paragrafoan aipatutako sei hilabete epea aurkezpen-egunetik hasita kontatuko da.

2. Autolikidazioaren edo, hala badagokio, behin-behineko likidazioaren ondoriozko kuota txikiagoa bada benetan atxikitako diru-kopuruaren, kontura egindako ordainketen eta, hurrenez hurren, 66. artikulua b), d), e) eta f) letretan aipatu diren kuoten eta, halakorik bada, IV. titulua III, kapituluaren aurrekustean diren kuota diferentzialeko kenkariaren batura baino, zerga gaietan eskuduna den departamentuak ofizioz itzuliko du kuota horren gaineko gaindikina, deusetan galarazi gabe bidezkoak diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak gero egiteko aukera.

3. Behin-behineko likidazioa ez bada gauzatu artikulu honetako lehenengo apartatuan ezarritako epean, zerga gaietan eskuduna den departamentuak ofizioz itzuliko du autolikidazioaren emaitza den kuotaren gaineko gaindikina, deusetan galarazi gabe egin beharreko suerta litezkeen ondorengo behin-behineko nahiz behin betiko likidazioak egitea.

4. Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako itzulketa egiteko epea pasatu eta zerga gaietan eskuduna den departamentuari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik itzulketa egiteko agindurik eman ez bada, itzuli beharreko kopuruari berandutza interesa aplikatuko zaio, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 50.2.c) artikulua ezarritakoa, itzulketa egiteko epea amaitzen den egunetik pagamendua agintzen den egunera arte, subjektu pasiboak hala eskatu beharrik izan gabe.

5. Erregelamendu bidez ezarriko dira artikulu honen aipatzen duen ofiziozko itzulketa egiteko prozedura, betekizunak eta ordaintze-modua”.

Hogeita sei. Berrogeita seigarren xedapen gehigarria, 3.a) apartatua eta 3.b) apartatuko lehen paragrafoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“a) Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan (finantza tresnen mer-

katuei buruzkoan) definitutako balore-merkatu arautuetakoren batean negoziatzeko onartu diren baloreak, balore horiek sozietateetako edo entitateetako funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, haien kotizazioaren arabera baloratuko dira.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan (finantza tresnen merkatuei buruzkoan) definitutako balore-merkatu arautuetakoren batean negoziatzeko onartu ez diren baloreak, balore horiek sozietateetako edo entitateetako funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, bi hauetako handienaren arabera baloratuko dira, beste merkatu-balio bat dutela frogatu ezean.”

Hogeita zazpi. Berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. Ondorengoengatik kenkaria igotzea, subjektu pasiboaren errenta mailaren arabera. Horren aplikaziorako arau eta espezialitateak.

62.9.b).b’) artikuluan jasotzen den ondorengoengatik kenkariaren zenbatekoa, subjektu pasibo bakoitzari dagokiona, zehaztuko da honako arau eta espezialitateei jarraikiz:

1. Subjektu pasibo bakoitzari dagokion kenkariaren zenbatekoa kalkulatu da, dituen ondorengo kopuruaren arabera eta kontuan hartu gabe hiru urte baino gutxiagoko edo adoptatutako seme-alabengatik igoera.

2. Zergaldian 30.000 euro baino gehiagokoak ez diren errentak, salbuetsiak kanpo, dauzkaten subjektu pasiboek zilegi izanen dute ateratzen den zenbatekoa igotzea, honako eskala honi jarraikiz:

a) 20.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: 100eko 40.

b) 20.001 eurotik 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: 100eko 40, ken subjektu pasiboak 20.000 eurotik gora duen errenta-gaindikinak azken kopuru horrekiko egiten duen proportzioa 50ekin biderkatzearen emaitza.

Emaitza gisa lortzen den portzentajea bi dezi-maletara biribilduta adieraziko da.

3. Ondotik aplikatuko dira hiru urte baino gutxiagoko edo adoptatutako ondorengo ahaideengatik igoerak, 62.9.b).b’) artikulua azken bi paragrafoetan xedatuaren arabera”.

Hogeita zortzi. Berrogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Berrogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Kuota diferentzialaren kenkarien ordainketa aurreratuak.

Kuota diferentzialari dagozkion ordainketa aurreratuak, IV. tituluaren III. kapituluaren arautzen direnak, zerga itzulketa gisa hartuko dira, foru lege honen 85.2 artikuluan eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 88. artikuluan ageri diren ofiziozko itzulketen baldintza berberetan”.

Hogeita bederatzia. Zazpigarren xedapen iragankorra, 2.b) eta 2.c) apartatuak. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“b) Sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren eta finantza baliabideen merkatuari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definituriko bigarren mailako balore-merkatu ofiziale-takoren batean negoziatorako onarturiko akzioei dagokienez, salbu eta ondasun higigarri eta higiezin inbertsiorako sozietateen kapital soziala ordezkatzaren duten akzioei dagokienez, ondare gehikuntza 100eko 25 murriztuko da lehen bi iraupen-urteez haragoko iraupen-urte bakoitzeko.

c) Ezertan galarazi gabe b) letran xedatutakoa, eta ondasun higiezinak, horien gaineko eskubideak edo Baloreen Merkatuari buruzko Legearen testu bateginaren 314. artikuluan ageri diren entitateen baloreak direnean, salbu eta ondasun higiezin inbertsiorako sozietateen edo funtsen kapital soziala edo ondarea ordezkatzaren duten akzioak edo partaidetzak direnean, ondare gehikuntza 100eko 11,11 murriztuko da lehen bi iraupen-urteez haragoko iraupen-urte bakoitzeko”.

Hogeita hamar. Hamazazpigarren xedapen iragankorra, 2. apartatua. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, subjektu pasiboak 53. eta 54. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkuluan dituen oinarrien baturak izan beharko du, kasua bada 55.2 artikuluan aipatzen diren konpentsazioko pentsioak batura horri kenduta, 62.1.h) artikuluan ezarritako zenbatekoak baino gutxiagokoa banakako tributazioan, eta 75. Lehena artikuluan ezarritakoak baino gutxiagokoa baterako tributazioaren kasuan; bi horiek, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeukaten testuaren arabera”.

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Jarraian zerrendatzen diren Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko arauak honako testu hauek izanen dituzte, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eraginarekin:

Bat. 5.7. artikulua.

“7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru araudian definitzen denaren arabera, 250.000 euro arte gehienez ere”.

Bi. 13. artikulua.

“13. artikulua. Kapital berekiak hirugarrenei lagatzearen adierazgarri diren baloreak, bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatuak.

Kapital berekiak hirugarrenei lagatzearen adierazgarri diren baloreak, Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2004ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatutakoak, edozein izanik ere horien izena, adierazgarritasuna eta haien ondoriozko etekinen izaera, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan daukaten batez besteko negoziazio-balioaren arabera zenbatuko dira”.

Hiru. 15.1. eta 2 artikulua.

“1. Edozein entitate juridikoren akzioak eta haien kapital sozialeko edo funts berekietako partaidetzak, Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatuak, salbu eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeei dagozkienak, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan daukaten batez besteko negoziazio-balioaren arabera zenbatuko dira.

2. Kotizazio ofizialerako oraindik onartu gabeko akzio berriak harpidetzen direnean –Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan kotizatzen duten entitate juridikoek jaulkitako akzioak–, akzio horien balioztat hartuko da harpidetzaldian izandako titulu zaharren azkeneko negoziazioan akzio horiek izandako balioa”.

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eragina izateko, salbu eta hamalaugarren atala, eragina 2018ko urtarrilaren 1etik

aurrera hasten diren zergaldietan izanen baitu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen arau hauek honako testua izanen dute:

Bat. 23.3.e) artikulua, lehen paragrafoa eta 6. zenbakia.

“e) Aurreko a) eta b) letretan ezarritakoa gorabehera, gastu kengarriak izanen dira honako jardueretan bakarrik erabilitako ibilgailuak erosi, errentan izan, konpondu, mantendu eta amortizatzearekin zerikusia duten eta horiekin loturiko beste edozein:”

“6. Ordain baten truke alokatzeko jardueran erabiltzen direnak, jarduera horretan ohikotasunez aritzen diren entitateen bitartez”.

Bi. 42.1. artikulua.

“1. Likidazio-oinarria da zerga-oinarriari, kasu bada, murriztapen hauek egin ondorengo emaitza, eta ordena honetan:

Lehena. Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen 9/1994 Foru Legeak, ekainaren 21ekoak, 13. 5 artikuluan ezartzen duena.

Bigarrena. Hirugarren xedapen gehigarriaren 2.e) atalean ezartzen den murriztapena.

Hirugarrena. 43. artikuluan ezarritako murriztapena.

Laugarrena. 44. artikuluan ezarritako murriztapena”.

Hiru. 43.1. artikulua, lehen paragrafoa.

“1. Aurre-aurreko hamabost urteetan amaitutako zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, horren % 70eko mugarekin, 42.1 artikulua aipatzen dituen murriztapenen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio. 2.a eta 3.a”.

Lau. 44.2. artikulua.

“2. Murriztapen hau zerga-oinarriaren ehuneko 40koa izanen da gehienez ere, oinarriari 42.1 artikulua aipatzen dituen murriztapenen zenbatekoa kendu eta gero. 1.a, 2.a eta 3.a”.

Bost. 53.2. 3. b) eta c) artikulua.

“b) Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik eta parte hartzeagatik kenkariak, 65. eta 65. bis artikuluetan arautuak.

c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik edo berrietan parte hartzeagatik

kenkariaren ehuneko 50. Enpresa txikien kasuan, ehuneko hori 100eko 100 izanen da”.

Sei. 62. artikulua 4. apartatuko bigarren paragrafoa eta 6. apartatua.

“Aurrekoa gorabehera, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ezin izanen du aplikatu, kuota-terminoetan, proiektua finantzatzeko ordaindu dituen diru-kopuruak bider 1,25 egitearen biderkadurari dagokion zenbatekoa baino gehiagoko kenkaririk. Gaindikina ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak aplikatzen ahalko du”.

“6. Artikulu honetan ezartzen dena aplikatzeko beharrezkoa izanen da, 2. apartatuak aipatzen duen finantzaketa kontratua izenpetu baino lehen, 61.6 artikulua aipatzen duen txostena lortzea, edo gutxienez txostena egiteko eskaera aurkeztu izana. Txosten edo eskaera hori, aipatutako kontratuarekin batera, komunikazio baten bitartez aurkeztu beharko diote zerga administrazioari, bai ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak, bai finantzaketan parte hartzen duen izenpetuta. Betiere, proiektuaren garapena hasten den zergaldia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan”.

Zazpi. 65.1 artikulua, lehen eta bigarren paragrafoak aldatzea eta hirugarren paragrafo bat gehitzea.

“1. Espainiako film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen (fikziokoak, animaziokoak edo dokumentalak) ekoizpenetan egindako inbertsioek, seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, kuota likidoan ehuneko 35eko kenkaria egiteko eskubidea emanen diote ekoizleari. Kenkariaren oinarria produkzioaren guztizko kostuak osatuko du, bai eta kopiak egiteko eta publizitate gastuetarako gastuek eta ekoizlearen kargurako sustapen gastuek ere, bi kasuetan produkzio-kostuaren ehuneko 50eko mugaraino.

Kenkari-oinarriaren % 40, gutxienez, Nafarroako lurraldean egindako gastuena izanen da.

“Kenkariaren zenbatekoa ez da hiru milioi euro baino gehiagokoa izanen”.

Zortzi. 65.2. artikulua, lehen paragrafoa aldatzea eta azken-aurreko paragrafo bat gehitzea.

“2. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Enpresa Zinematografikoen Erregistroan izen emanda dauden ekoizleek, film luze zinematografikoen ekoizpenaz edo seriean eginiko ekoizpen industrialak egin baino lehenagoko euskarri fisikoa

egiteko modua ematen duten ikus-entzunezko obren ekoizpenaz arduratzen direnek, eskubidea izanen dute Nafarroako lurraldean egindako gastuen ehuneko 35eko kenkaria kuota likidoan aplikatzeko. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, ekoizpenean gutxienez ere astebeteko filmatzea egin beharko da Nafarroako barnealde edo kanpoaldeetan, salbu eta behar bezala justifikatutako inguruabarrengatik epea laburragoa denean, Nafarroako Foru Komunitatean egin ezin izateagatik”.

“Kenkariaren zenbatekoa ez da hiru milioi euro baino gehiagokoa izanen”.

Bederatzi. 65.6 artikulua.

Oraingo 6., 7. eta 8. apartatuak 7., 8. eta 9. apartatuak izanen dira hemendik aurrera.

6. zenbakiko apartatu berri bat gehitzen da. Hona:

“6. Artikulu honetan araututako kenkariak aplikatzeko, enpresa ekoizleak honakoa beharko du:

a) Filmaketako material grafikoa eta ikus-entzunezko eta Nafarroako lokalizazioetarako irispidea ematea edo baimentzea, merkataritzakoa ez den eta eskusiboki Nafarroaren ezagutarazpena egiteko erabilerarako (Teaser, trailer, making of, EPK, Nafarroako filmaketen eszenak, argazkiak).

b) Bukaerako kredituetan honako hau gehitzea:

1. “Esta producción se ha acogido al esquema de incentivos fiscales previsto en la Ley Foral del Impuesto de Sociedades de la Comunidad Foral de Navarra” / “Ekoizpen hau Nafarroako Foru Komunitateko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean aurreikusten diren sustagarri fiskalen babesarekin egin da” / “This production has benefited from the tax deductions included in the Foral Law of Corporate Tax of the Region of Navarra”.

2. Nafarroako Gobernuaren logotipoa.

3. “Está producción ha contado con el apoyo de Navarra Film Commission” / “Navarra Film Commission-en babesarekin” / “With the support of Navarra Film Commission”.

4. Navarra Film Commission-en logotipoa.

c) Produkzio edo koprodukzio nazionalen kasuan, ekoizleak produkzioaren kopia bat Nafarroako Fimotekari eman beharko dio”.

Hamar. 65. bis artikulua gehitzea.

“65.bis artikulua. Zinema ekoizpenetan eta ikus-entzunezko serieetan parte hartzea.

1. Zerga honen edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, establezimendu iraunkor baten bidez operatzen badute eta beste zergadun batzuek egindako zinemako film luze espainiarren eta ikus-entzunezko serieen (fikzio-koak, animaziokoak edo dokumentalak) –seriean eginiko ekoizpen industrialak egin baino lehenagoko euskarri fisikoa egiteko modua ematen duten– finantzaketan parte hartzen badute –betiere, horiek 65.1 artikuluan kenkarietarako eskubidea sortzeko baldintzak bete beharko dituzte–, eskubidea izanen dute kuota likidoan kenkari bat egiteko, artikulua honetan ezarritako baldintzekin eta betekizunekin. Kenkari hori bateraezina izanen da, erabat edo partez, aipatutako 65.1 artikulua aplikatzeagatik beste zergadun horiek eskubidez eduki ahalko lituzketen kenkariekin.

Ezin izanen da kenkari hori aplikatu ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergaduna lotuta badago, 28.1. artikulua ezarritako zentzuan, ekoizpena egiten duen zergadunarekin.

2. Ulertuko da zergadun batek parte hartzen duela beste zergadun batek egiten duen zinema ekoizpen edo ikus-entzunezko serie baten finantzaketan, diru kopuruak ipintzen dituztenean, maila-gu kontzeptuan, ekoizpen kostuak partez edo osorik ordaintzeko.

Kenkariaren bidez egiten da ekarpen horien itzulketak, kontratuan eta 65.1 artikuluan ezarritakoaren arabera finantzaketan parte hartzen duten zergadunei dagozkienak.

Ez da onargarria izanen zinema ekoizpenaren edo ikus-entzunezko seriearen finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzea, oinordetza unibertsalaren kasuetan izan ezik.

3. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da zinema ekoizpena edo ikus-entzunezko seriea egiten duten ekoizleak bai eta haien finantzaketan parte hartzen dutenek finantzaketa-kontratu bat izenpetzea, non, besteak beste, honako xehetasunak zehaztuko baitira:

a) Ekoizpenean parte hartzen duten zergadunen identitatea.

b) Zinema ekoizpenaren edo ikus-entzunezko seriearen deskribapena.

c) Ekoizpenaren aurrekontua, gastuen deskribapen zehatza jasoko duena; batez ere, Nafarroa-

ko lurraldean eginen diren gastuena. Halaber adieraziko da haien denbora-egozpena.

d) Ekoizpena finantzatzeko modua, bereizirik adierazita ekoizpena egiten duen zergadunak jartzen dituen kopuruak, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak jartzen dituenak eta finantza-erakundeen kredituei, diru-laguntzei eta bestelako laguntza-neurriei dagozkienak.

e) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako gaiak.

4. Ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek ezin izanen dute eskuratu jabetza intelektualeko eskubiderik, ez eta bestelakorik ere, proiektu horren emaitzak direla-eta; izan ere, haien jabetza, edonola ere, ekoizlearena izanen da.

5. Zergadunek artikulua honetan ezartzen den araubidea aplikatzearen aldeko hautua egiten dutenean, ekoizleak ez du eskubiderik izanen 65.1. artikuluan ezarritako kenkariei dagokien gutzitiko zenbatekoa edo zenbateko partziala aplikatzeko, eta, horren ordez, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eskubidea izanen du bere autolikidazioan frogatzeko aipatu artikulua horretan ezarritako kenkaria, eta kenkari horren zenbatekoa zehaztuko da ekoizleari aplikatuko zitzaizkiokeen baldintza bere-tan.

Aurrekoa gorabehera, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ezin izanen du kenkari handiagorik aplikatu zera baino, ekoizpena finantzatzeko aldera berak ordaindu dituen diru-kopuruak bider 1,25 egitearen emaitzari dagokion zenbatekoa baino, kuota-terminoetan. Gaindikina ekoizleak aplikatzen ahalko du.

6. Ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak urtero aplikatuko du artikulua honetan ezartzen den kenkaria, zergaldi bakoitzean egin dituen ekarpenen arabera, baita zergaldi bakoitzean ekoizleak egiaztatzen duen 65. artikuluko kenkariaren arabera ere.

Hala ere, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak zergaldian ordaintzen baditu ekoizleak egiaztatzen duena baino kenkari handiagoa ahalbidetuko zuketuen kopuruak, gaindikina ondorengo zergaldietan aplikatzen ahalko da, aurreko paragrafoan ezartzen denarekin bat etorrituz.

7. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz aplikatzen diren kenkariak handiagoak badira zergadunak zinema ekoizpenen edo ikus-entzunezko serieen finantzaketan inbertitutako zenbatekoak baino, haren zerga-oinarrian sartuko da aplikatuta-

ko kenkariaren eta ekoizpen horiek finantzatzeko ordaindutako diru-kopuruaren arteko alde positiboa.

8. Artikulu honetako kenkaria lortu nahi duten zergadunek 3. apartatuak aipatzen duen finantzaketa kontratua aurkeztu beharko dute tributu administrazioari egindako komunikazio batean, ekoizleak eta ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak izenpetuko dutena, ekoizpena garatzen hasiko den zergaldia amaitu baino lehenago, erregelamenduz ezarritako diren terminoetan”.

Hamaika. 87.1 artikulua. b) 3. letrari paragrafo bat gehitzea, eta azken paragrafoa aldatzea.

“Alabaina, ez zaizkie sozioei egotziko 61. eta 65. artikuluetan aurreikusitako kenkariaren oinarriak, interes ekonomikoko taldeei egiten dizkieten ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar direnean, kontabilitate irizpideen arabera”.

“Aurrekoa gorabehera, kontabilitate irizpideen arabera bazkideek interes ekonomikoko taldeei egiten dizkieten ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar direnean, likidazio-oinarri negatiboen eta kuota-kenkariaren oinarriaren egozpenen osotasunak ezin izanen du ekarri bazkidearen kuota efektiboa honako biderkadura hau baino neurri handiagoan txikiagotzea: entitatearen kapitalari egin dizkion ekarpenen zenbateko ordaindua bider 1,25”.

Hamabi. 94.7 artikulua, hirugarren eta laugarren paragrafoak.

“Kenkari horren aplikazioa baldintzatuta egonen da zergaren kudeaketaren gaineko eskumena duen Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzuak berariazko baimena emateari, kapital-arriskuko entitateek eskaera egin ondoren.

Apartatu honetan araututako kenkaria VI. tituluko IV. kapituluaren azaltzen diren kenkariarekin batera aplikatuko da, eta zenbatu egiten da 67.4. artikuluan ezarritako mugari begira. Kenkari hori bateraezina izanen da 37.1 artikuluan aurreikusitako balore-berrinbertsioekin”.

Hamahiru. 107.1. artikulua, bigarren paragrafoa.

“Zerga taldean sartzen den unean edozein entitatek likidazio oinarri negatiboak konpentsatu gabe baditu, oinarri horiekin taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko da, entitatearen zerga-oinarri individualaren ehuneko 70eko mugarekin, ken, hala badagokio, 42.1 artikuluko lehenengo eta bigarren atalek aipatzen dituzten murriztapenen zenbatekoa, kontuan harturik entitate horri dagoz-

kion eliminazioak eta inkorporazioak, 104.2 eta 3 artikuluan ezarritakoarekin bat”.

Hamalau. Hirugarren xedapen gehigarria, 1. apartatuko seigarren paragrafoa.

“Entitateak ez dira ekintzailatzat hartuko baldin eta jarduera bat hasten badute zeinetan aurreko 5 urteetako uneren batean jadanik aritu baitira beraiek, edo beste entitate bat zeinarekin ehuneko 50 baino gehiagoko kointzidentzia baitago kapitalaren titulartasunean, edo haien bazkideren bat, ehuneko 25 edo gehiagoko partaidetza duena, edo sozietate-talde bereko edozein entitate, Merkataritza Kodearen 42. artikulua ireldean, kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu bateratuak egitearen betebeharra”.

Hamabost. Hemeretzigarren xedapen gehigarria eranstea.

“Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Beren produktuak eraldatzen dituzten nekazaritza-sozietate zibilak.

Zerga honetarako, jotzen da ezen beren produktuen lehen eraldaketa bat egiten duten eta Nafarroako Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroan izena emanda dauden nekazaritza-sozietate zibilak ez dutela merkataritza xederik, eta beraz ez dutela ordaindu behar Sozietateen gaineko Zerga, betiere aurreko zergaldian baldintza hauek bete badituzte:

a) Lehentasunezko nekazaritza-ustiatzei kalifikazioa izan dezatela, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

b) Ustiatzeiak nekazaritzako elikagaiak zuzenean saltzen dituzten operadoreen Nafarroako erroldan inskribaturik egotea, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legea garatzen duen azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretuarekin bat.

c) Beren negozioen zenbateko garbia 180.000 euro baino gehiago ez izatea.

d) Sozio guztiak Nafarroan izatea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun.

Xedapen gehigarri honetan ezartzen diren betekizunetako edozein urratzeak ondorio bezala ekarriko du nekazaritza-sozietate zibilak errenta-egozpenaren araubidean tributatzeari uztea, eta Sozietateen gaineko Zergako zergadun izatera pasatzea, beren produktuen eraldaketa-jarduerari eusten dioten bitartean”.

Hamasei. Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra. Araubide iragankorra, 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzeagatik enkarrion aplikagarria, baita zinema ekoizpenak eta ikus-entzunezko serieei dagozkien enkarrion ere.

2019ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuei dagozkien enkarrion kasuan, beren finantzaketan parte hartzeagatik dagozkien enkarrion kasuan, baita zinema ekoizpenak eta ikus-entzunezko serieei dagozkien enkarrion kasuan ere, amaitzen diren arte 62., 65., eta 87. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da, dagozkion arabera, artikuluoak aipatu proiektuak eta ekoizpenak egiten hasi diren egunean daukaten indarreko idazketa-rekin”.

Laugarren artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bategina.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetarako, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren ondoko arau hauek jarraian agertzen den testua izanen dute:

Bat. 5.2 artikulua.

“2. Halaber joko da ezen segurtasun kutxetako mota guztietako ondasun eta baloreak, eta partikularrei, bankuei, elkartei, sozietatei, aurrezki kutxei edo beste edozein entitate publiko nahiz pribaturi gordailuan, kontu korrontean edo beste edozein kontratu zibil edo merkataritza-kontratu moduan ematen zaizkienak, bi pertsonari edo gehiagori indibidualki nahiz bereizgabeki horien osotasunaren gainean eskubide berak aitorturik, jabetzan eta parte berdinetan direla titular bakoitzarenak, non eta ez dagoen aurkako frogarik, zeina aurkeztu ahalko baitute bai zerga administrazioak bai partikularrek edo interesdunek”.

Bi. 6.1) artikulua.

“1. Baldintzaren bat duten egintza edo kontratuetan, legedi zibil aplikagarrian dauden aginduen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, baldintza betetzen den arte ez da zerga eskatuko, eta autolikidazioaren aurkezpena geroratu dela adieraziko da, erregelamenduz zehazten diren terminoetan”.

Hiru. 7.3) artikulua.

“3. Egintzak edo kontratuak irabazizko ondorioak eduki baditu, autolikidazioa edo, hala bada, egindako likidazioa zuzenduko da, eta horretarako oinarritzat hartuko da eskuratutako ondasunen edo eskubideen aldi bateko gozamenak, 38. artikulua zehazten duen moduan kalkulatu, kontuan hartuta egintzak edo kontratuak zenbat denbora iraun duen, kontratuaren izaera dela-eta gozamen bat egon dela estimatzea ezinezkoa denean, eta ondorioz, zergadunari itzuliz autolikidazio edo likidazio berriaren eta hasierakoaren artean bere alde atera den diferentzia”.

Lau. 8.a) artikulua.

“a) Ondasunak eta eskubideak “mortis causa” eskuratzea, jaraunspena, legatu edo oinordetzarako beste edozein tituluren bidez, inbentarioak eta banaketak gauzatu izan ez balira ere.

Letra honek ezartzen duenaren ondorioetarako, ondasunak eta eskubideak ipso iure eskuratu direla ulertuko da, berariaz edo isilbidez onartu behar izan gabe, 44. artikulua aplikazioaren kaltetan gabe”.

Bost. 12. artikulua. f) letra gehitzea.

“f) Entitateetako akzioak edo partaidetzak irabazi asmoz eta “inter vivos” edo merkatu balioaren azpiko prezioan eskuratzea, eskuratutako akzioek edo partaidetzek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62.11 artikulua ezartzen duen kategoria egiteko baldintzak betetzen dituztenean. Salbuespen horren zenbatekoa, gehienez ere, 20.000 eurokoa izanen da.

Aipatu 62.11 artikuluan ezartzen den edozein baldintza betetzen ez bada, subjektu pasiboa dagokion zerga erregularizazioa egin beharko du”.

Sei. 22.5. artikulua, indargabetzea.Zazpi. “33. artikulua, errubrika.

“33. artikulua. Tributazio arauak”

Zortzi. 33.1. artikulua.

“1. “Mortis causa” eskuratzen direnak, jaraunspen, legatu edo oinordetzarako beste edozein tituluren bidez, kausatzailearen eta kausadunaren artean dagoen ahaidetasun-graduaren arabera tributatu dira.

Kausadunak ez badira ezagunak, arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifa aplikatuko da zergan, behin ezagutuz gero, hala badagokio, egin behar den itzulketaren kaltetan gabe”.

Bederatzi. 37 artikulua. 2.

“2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, preskripzioari begira, agiriak pribatuak baldin badira, dokumentuak aurkeztu ziren eguna hartuko da kontuan, aurretik Kode Zibilaren 1227. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatzen ez bada, kasu horretan kontatuko baita sartu, inskribatu, hil edo eman zen eguna, hurrenez hurren. Agiri bidez jaso gabeko kontratuetan, ondorio horiexetarako, interesdunek foru lege honetako 53. artikuluan ezarritakoa betetzen duten eguna hartuko da baliagarritzat”.

Hamar. 37.3. artikulua.

“3. Ukoaren ondorioak diren eskuratzeak zergapetzen dituen zergaren preskripzio epea, foru lege honen 44. artikulua ezartzen dituen terminoetan, ukoaren egunetik hasiko da kontatzen; eta soilik zerga mailakoak diren ondorioetarako, ez da aplikagarria izanen Kode Zibilaren 989. artikulua ezartzen duena, ezta Konpilazioaren 315. legea ezartzen duena ere”.

Hamaika. 38.4 artikulua, bigarren paragrafoa.

“Aurrekoa ukatu gabe, gozamena iraungitzen denean, eskuratze tituluak berak behartzen du jabe soila gozamena iraungitzearen kontzeptuarengatik ordaintzera, eta jabetza soila eskuratzean zerga likidatu ez den ehunekoaren gainean ordainduko du. Ehunekoa aplikatuko da jabaria finkatzen den unean ondasunek daukaten balioaren gainean, egun hartan indarrean dauden tarifak eta ondasunen balio osoari dagokion tipoa aintzat hartuz”.

Hamabi. 38.5.a) artikulua.

“5.a) Gozamena edo jabetza soila eskualdatzen bada, autolikidazio berri bat egingo da, biak aurreko arauak kontuan hartuz ebaluatuz, eta kontuan hartuz, halaber, eskualdatzailearen eta eskuratzailearen arteko lotura juridikoa, aurreko ataletan ezarritakoaren arabera egindako likidazioak alde batera utzita”.

Hamahiru. 38. artikulua. 7 eta 8.

“7. Gozamenari amaiera emateko baldintza ez bada gozamenaren heriotza, autolikidazioa lehengo ataletan bizi arteko gozamenetarako ezarritako arauen arabera egingo da, ez bada, gozamenari amaiera emateko baldintza bete eta gero, beste autolikidazio bat egiten dela aldi baterako gozamenetarako ezarritako arauen arabera, eta horren ondorioz behar diren zuzenketak egiten direla Foru Komunitatearen edo interesdunaren alde.

8. Erabiltzeko eta biztante-eskubideak iraungitzen direnean gozamenunari zerga eskatuko zaio, gozamenunari badago, gozamenaren balioaren gehikuntzarengatik, eta gozamenik ez balitz jabe soilari eskubide horiek iraungitzeagatik dagokion zerga eskatuko zaio. Gozamena erabiltzeko eta biztante-eskubideak baino lehenago iraungitzen bada, jabe soilak aipatu gozamen eskubidea iraungitzeagatik gertatu den partezko finkatzeari dagokion zerga ordainduko du, bere jabetza soilak gehikuntza bat edukiko duelako partezko finkatze horri esker”.

Hamalau. 44.1 artikulua bigarren lerrokada.

“Ukoaren onuradunak kausatzailearen beste ondasun batzuk eskuratzen baditu zuzenean, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, baldin eta bi ondasun-multzorik horiek bereiz eskuratzegatik egindako likidazioen batura handiagoa bada ondasun guztien balioaren arabera kalkulatu dena baino, betiere kausatzailearen eta ukoaren onuradunaren arteko ahaidetasuna dela-eta dagokion karga tasa aplikatuta”.

Hamabost. 46.1. artikulua.

“1. Fideikomisoetan, autolikidazioa aurkeztu behar den epeetan ez bada ezagutzen jaraunse fideikomisoa, fiduziarioak ordainduko du arrotzen arteko jaraunspenentarako ezartzen diren tipoen arabera, kausatzailearekin daukan ahaidetasun-maila edozein delarik ere”.

Hamasei. 48.2. artikulua.

“2. Kode Zibileko 968., 969., 979. eta 980. artikuluek aipatzen duten ohiko erreserban, erreserbagileari jabari osoarengatik eskatuko zaio zerga, ukitutako ondasunen jabetza soilarengatik ordaindu denaren itzulketarako eskubidea ukatu gabe, egiaztatzen denean ondasun horiek edo bere subrogatuak erreserbagileari eskualdatu zaizkio”.

Hamazazpi. 51 artikulua, paragrafo bat gehitzea amaieran.

“Inoiz ez da bidezkoa izaneren dohaintzengatik, gainerako irabazizko eskualdatze baliokideengatik eta gaur eskuratu denarengatik metatutako aseguruengatik lehenago ordaindutako kuotak itzultzea”.

Hemezortzi. 52 artikulua, azken lerrokada gehitzea amaieran:

“Inoiz ez da bidezkoa izaneren dohaintzengatik, gainerako irabazizko eskualdatze baliokideengatik eta oinordetzarengatik metatutako aseguruengatik lehenago ordaindutako kuotak itzultzea”.

Hemeretzi. 54. artikulua indargabetzea.

Hogei. 56.1. artikulua.

“1. Irabazi asmoz eskuratutako ondare gehikuntza bat dagoela erakusten duten egintzak edo kontratuak dituzten dokumentuak ez dira onartuko eta ez dute ondorio sortuko bulego edo erregistro publikoetan, bertan ez badago jasota dagokion autolikidazioa ordaindu dela, edo salbuetsita dagoela edo zergetatik aske dagoela, hipotekei buruzko legeek aurreikusten dituzten kasuetan izan ezik edo zerga gaietan eskuduna den departamentuak berriaz baimena eman ezik.

Aurreko paragrafoan aipatzen den egiaztape nerako nahikoak dira 55.3 artikuluan adierazitako eskrituraren kopia elektronikoa administrazioak jaso izanaren frogagiria eta, zerga administrazioaren bulegoan dokumentua aurkeztu izanaren frogagiria edo autolikidazioaren interesatuarendako alea, ordainketa agertarazten duena, nahiz zergapetzetik libre edo salbu dagoela dioen aitortpena, behar bezala balioztatua; hori guztia, zerga gaietan eskuduna den departamentuko titularrak erabakitzen duen moduan.

Betiere, aurkezpen edo ordainketa telematikoren frogagiria, zerga gaietan eskuduna den departamentuko titularrak arautua, autolikidazioa aurkeztu eta ordaindu izanaren frogagiria izanen da ondorio guztiekin”.

Hogeita bat. 57.2. artikulua, indargabetzea.

Hogeita bi. 58. artikulua.

“58. artikulua. Konturako autolikidazio partzialak.

1. 8.c) artikulua aipatzen dituen jaraunspeneko oinordetzetan eta aseguruetan interesatuek zergaren autolikidazio partzial bat egiten ahal dute ondorio hauetarako: bizitza aseguruak kobratzeko, kausatzailearen kredituak, kausatzaileak sortutako eta ez jasotako hartzekoak, gordailuan dauden ondasunak, baloreak, efektuak edo dirua jasotzeko, eta antzekoak diren gauzetarako.

2. Autolikidazio hauek egiteko, interesdunek kopuruak kobratu ahal izateko baldintzak edo gordailuan utzitako kopuruak edo ondasunak jasotzeko modua eta epeak erregelamenduaren bidez arautuko dira.

Lehenagoko atalak aipatzen dituen bizitza aseguruak kobratzeko egiten diren autolikidazio partzialetan, kontuan hartuko dira foru lege honen III. kapituluaren ezartzen diren salbuespenak, bertan ezartzen diren baldintza eta mugekin.

3. Autolikidazio partzialak dagokion jaraunspeneko oinordetzarengatik egin beharreko autolikidazioaren konturako sarreratzat hartuko dira”.

Hogeita hiru. 59. artikulua.

“59. artikulua. Autolikidazioaren aurkezpenaren atzerapena.

Honako hauek gertatuz gero autolikidazioaren aurkezpena atzeratuko da:

a) Egintzetan edo kontratuetan bertan behera uzteko baldintzaren bat dagoenean, 6. artikulua-ekin bat etorrira.

b) Likidoak ez diren edo zenbateko ezezagunekoak diren kredituak irabazi asmoz eskuratzean, likidoak izan arte, erregelamenduaren bidez ezartzen den terminoetan.

c) Eskuratu den ondasun baten zenbatekoa segurtasun osoz ezin zehaztu denean, zenbatekoa zehazten den arte, eta egun horretatik kontatuz autolikidazioa aurkezteko epe berria.

d) Eskuratu den ondasun baten edo jaraunspeneko oinordetza baten eskubideen eskuratzaila nor den segurtasun osoz ezin zehaztu denean, ezagutzen den arte, eta autolikidazioa aurkezteko epe berria egun horretatik kontatuz. Letra honetan ezartzen dena ulertuko da fideikomiso puruei buruz ezarritakoa galarazi gabe”.

Hogeita lau. 60. artikulua.

“60. artikulua. Zergaren ordainketa.

Subjektu pasiboek, zerga aitortzen aurkezten dutenean, dagokien zerga-zorra zehaztu beharko dute, honen autolikidazioa egin eta zerga gaietan eskuduna den departamentuko titularrak ezarritako toki, modu eta epeetan horren diru-sarrerara egin beharko dute.

Administrazioak egiten dituen likidazioen ordainketa egin beharko da Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduak ezartzen dituen epeetan”.

Hogeita bost. Lehen xedapen gehigarria, indargabetzea.

Bosgarren artikulua. Zerga bereziei buruzko Foru Legea.

Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen hirugarren azken xedapen bat gehitzea. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Azken xedapenetako hirugarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari foru lege honen erregelamenduzko garapena egiteko ematen zaizkion gaikuntzak zerga gaietan eskuduna den departamentuko titularrari ere ematen zaizkiola ulertuko da, foru aginduen bidez aipatu foru legearen erregelamenduz garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan”.

Seigarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren agindu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 19.2. artikulua, indargabetzea. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bi. 76.1 artikulua, bigarren eta hirugarren paragrafoak. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera egiten diren arau-hausteetan izanen ditu ondorioak.

“Zergapekoak ez baditu epe barnean ordaintzen gero aurkeztutako autolikidazio batean sartutako edo erregularizatutako zergak edo konturako ordainketak, betiere 52.3 artikulua-aren azken paragrafoko baldintzak bete gabe, ordaindu gabeko zenbatekoen ehuneko 55eko diruzko isun proportzionala jarriko da, deusetan galarazi gabe 71.3 artikuluan finkatutako murriztapena. Paragrafo honetan aurreikusitakoa ez da aplikatzekoa izanen baldin eta aurkeztutako autolikidazioan sartu badira aldeztatik zerga administrazioa errekerimendu baten jakinarazpena izan duten kontzeptu eta zergaldietako diru-sarrerak.

Zerga administrazioko organo batek, eskumetik ez izanik dagokion zergako likidazioko egintza administratiboak emateko, errekerimenduak egiten baditu eta errekerimendu horien ondorioz zerga arloko arau-hauste larriagatik zehapen prozedurarik irekitzen bada, ehuneko 55etik ehuneko 120rako izanen da 69.1 artikuluan aipatzen den diruzko isun proportzionala, galarazi gabe 71.3 artikuluan ezarritako murriztapena”.

Hiru. 94.4 artikuluko e) eta f) letrak aldatzea eta g) letra kentzea. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“e) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen VIII. tituluko VIII. kapitulua enpresa berrantolatze eragiketetan interpretatu eta aplikatzea.

f) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 61. artikuluan aurreikusitako ikerketa zientifikoaren eta

berrikuntza teknologikoaren pizgarrien berriazko proiektu eta kasuetan interpretatu eta aplikatzea”.

Lau. 96. artikuluar 4. apartatua gehitzea. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“4. Zerga araudiaren arabera aitorten bat aurkeztearekin batera erabili, eskatu edo ukatu behar diren aukerak ezin izanen dira ondoren zuzendu, zuzenketa hori aitorpenerako erregelamenduzko aldiari aurkeztu ezean”.

Bost. 99.5 artikulua. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“5. Bitarteko elektronikoen bidez zergapekoari egiten zaizkion jakinarazpenen araubidea erregelamenduz ezartzen diren espezialitateak biltzen dituzten administrazio arau orokorretan adierazita-koa izanen da.

Bitarteko elektronikoen bidez egindako jakinarazpenak jasotzera beharturik dauden edo borondatez aukera hori egin duten subjektuen kasuan, ulertuko da prozeduren iraupenaren gehieneko epean jakinarazteko betebeharra bete dela zerga administrazioaren egoitza elektronikoa edo gaitutako helbide elektronikoa bakarrean jakinarazpena eskuragai jartzen denean”.

Sei. 105.1. artikulua, o) letra gehitzea. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“o) Lankidetzeta, Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuarekin, beren eskumenen eremuan: kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren kontrola, defizit publikoaren jarraipena, diru-laguntzen eta laguntza publikoaren kontrola, eta foru sektore publikoko entitateen merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako borroka”.

Zazpi. 139.1.b)2 artikulua, bigarren paragrafoa. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritakoarekin bat, lotutako pertsona edo entitate batzuen gaineko ikuskapenak egiten direnean, letra honetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira haietako edozeinetan, epe hau ezarriko da denekin bete beharreko ikuskapen prozeduretan”.

Zortzi. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera hasitako prozeduretan eragina izateko.

“Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Berriazko ebazpena eman gabe ezarritako

gehieneko epea igarotzeagatik ezetsizat har daitezkeen prozedurak.

A) Interesdunak eskatuta hasitako prozedurak, ezetsizat har daitezkeenak sei hileko epea amaituta berriazko ebazpenik jakinarazi ez denean.

1. Sozietateen gaineko zergan araututako prozedurak:

a) Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketarako baloratzeko aurreko akordioak eskatzeko prozedura.

b) Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketarako baloratzeko aurreko akordioaren aldaketa eskatzeko prozedura.

c) Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketarako baloratzeko aurreko akordioak luzatzeko eskatzeko prozedura.

d) Zenbait aktibo ukiezinetatik datozen errentak murriztu eta baloratzeko portzentajea ezartzeko aurreko akordioak eskatzeko prozedura.

e) Zenbait aktibo ukiezinetatik datozen errentak murriztu eta baloratzeko portzentajea ezartzeko aurreko akordioaren aldaketa eskatzeko prozedura.

f) Zenbait aktibo ukiezinetatik datozen errentak murriztu eta baloratzeko portzentajea ezartzeko aurreko akordioa luzatzeko eskatzeko prozedura”.

2. Fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamenduen prozedurak.

a) Faktura elektronikoen jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren integritatea bermatze aldera interesdunek proposatu dituzten beste bitarteko batzuen balidazioa eskatzeko prozedura.

b) Zuzenketa-fakturetan zuzendu diren fakturak ez identifikatzeko baimena eskatzeko prozedura.

3. Beste prozedura batzuk:

a) Aitorpen-likidazioak eta autolikidazioak zuzentzea eskatzeko prozedura.

b) Ohiko etxebizitzaren ondarearen exekuzioa eteteko prozedura, hirugarren adinekoen zentroetako erabiltzaileek ekarpen ekonomikoak eginez gero.

c) Ordaintzera behartuta dagoenak eskatuta konpentsatzeko prozedura.

B) Interesdunak eskatuta hasitako prozedurak, ezetsizat har daitezkeenak sei hileko epea amaituta berriazko ebazpena jakinarazi ez denean.

1. Balio erantsiaren gaineko zergan araututako prozedurak:

a) Hileko Itzulketaren Erregistroan izena ematea eskatzeko prozedura.

b) Europar Batasunaren barruko Operadoreen Erregistroan alta edo baja ematea eskatzeko prozedura.

c) Mugikortasun urriko pertsonak edo desgaitasuna dutenak eramateko autotaxi eta ibilgailuetan zerga tasa murriztua aplikatzeko eskubidea aitortzeko prozedura.

d) Garraiobide berriak noizbehinka emateagatik itzulketa eskatzeko prozedura.

e) Araubide erraztuan aplikatu beharreko indizeak edo moduluak murriztea eskatzeko prozedura.

f) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian konpentsazioak itzultzea eskatzeko prozedura.

g) Txikizkako saltzaileek bidaiariei entrega salbuetsiak egitean ordaindutako diru kopuruak itzultzea eskatzeko prozedura.

2. Fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamenduan jasotako prozedurak:

a) Enpresa edo lanbide sektoreei edo enpresa jakinei dagokienez faktura egiteko betebeharrak salbuesteko baimena eskatzeko prozedura, enpresa edo lanbide jardueretan aritzeko eragozpenak saiheste aldera.

b) Faktura erraztua egiteko baimena eskatzeko prozedura.

c) Faktura erraztuan zenbait aipamen ez agertzeko baimena eskatzeko prozedura.

3. Beste prozedura batzuk:

a) Zerga zorra ondasunak emanaz ordaintzea eskatzeko prozedura.

b) Zorrrak geroratu eta zatitzea eskatzeko prozedura.

c) Jabari edo eskubide hobeko hirugarrengotzak erreklamatzeko prozedura.

C) Interesdunak eskatuta zerga berezien eta berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergen eremuan hasitako prozedurak.

1. Oro har, zerga berezietan eta berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergan arautzen diren prozeduretan, estatuko araudian isiltasunari eta berariazko jakinarazpenerako ezarritako

gehieneko epeari buruz ezarritakoari jarraituko zaio.

2. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea garatzen duen urtarrilaren 11ko 1/1993 Foru Dekretuan adierazitako prozedura (horren bidez, halako garraiobide batzuen gaineko zerga bereziari ez atxikitzeke eta horretatik salbuesteko kasu batzuk aurretik aitortu ziren) ezetsizat hartzen ahalko da hiru hilabeteko epean berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada.

3. Nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioaren itzulketa partziala egiteko prozedura, zeina Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Foru Legearen 52.ter artikuluan jasotzen baita, ezetsizat hartzen ahalko da sei hilabeteko epean berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada”.

Bederatzi. Hogeita hamargarren xedapen gehigarria gehitzea. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Ondare prestazio publikoak.

1. Ondare prestazio publikoak dira Konstituzioaren 31.3 artikuluan aipatu eta bortxaz eskatzen direnak.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ondare prestazio publikoak zergen arlokoak izan daitezke edo ez.

Zergen arloko prestaziotzat joko dira 1. apartatuan aipatu eta foru lege honen 19. artikulua barneko zerga, tasa eta kontribuzio berezizat jotzen direnak.

Zergaz besteko ondare prestazio publikoak izanen dira, bortxaz eskatuta, interes orokorreko xedeetarako diren gainerakoak.

Bereziki, zergaz besteko ondare prestazio publikotzat hartuko dira, horrelakoak izanik, pertsonifikazio pribatuaren edo zeharkako kudeaketaren bidez zuzenean kudeatzen den zerbitzu bat emateagatik eskatzen direnak.

Zehatz-mehatz, horrelakotzat hartuko dira ekonomia mistoko sozietateek, enpresa entitate publikoek, kapital erabat publikoko sozietateek eta zuzenbide pribatuko gainerako formulek emakida araubidean obrak ustiatzeagatik edo zerbitzuak emateagatik eskatzen direnak”.

Hamar. Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzea. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Zerga zorra geroratzeko edo zatitzeko 2019an

egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Zerga zorra geroratzeko edo zatikatzeke 2019an egiten diren eskaerei, betiere horien dirubilketa kudeatzeko lana Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari badagokio, hogeita seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie”.

Zazpigarren artikulua. Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen agindu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testua izanen dute:

Bat. 9.9 artikulua, laugarren paragrafoa.

“Sozietateen gaineko Zerga kudeatzeko eskumena duen Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzuak partaidetza handiagoak baimentzen ahalko ditu zerga kontuetarako babesturiko kooperatiba izateari utzi gabe, horrelakoak eskatuz gero, baldin eta justifikatzen bada partaidetza horrek kooperatibaren helburu sozialak hobeki betetzen laguntzen duela eta berekin ez badakar entitate horien funtsezko jarduketara printzipioak urratzea”.

Bj. 10. artikulua, lehen paragrafoa.

“Sozietateen gaineko Zerga kudeatzeko eskumena duen Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzuak aurreko artikuluetan bazkide ez diren hiru-garrenekin eragiketarako egiteko eta soldataro langileak kontratatzeke ezarritako mugak ez aplikatzea baimentzen ahalko du idatzizko erabaki arrazoituaren bidez, baldin eta kooperatibari berari egotzi ezin zaizkion ohiz kanpoko gorabeheren ondorioz kooperatibak jarduera horiek luzatu behar baditu epe eta zenbateko zehatz batzuetan”.

Hiru. 20. artikulua.

“20. artikulua. Karga-tasak eta tributu kuota.

1. Zerga kontuetarako babesturiko kooperatibei tasa hauek ezarriko zaizkie:

Lehena. Kooperatiben emaitzei dagokien likidazio-oinarriari ehuneko 17ko tasa aplikatuko zaio.

Bigarrena. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokien likidazio-oinarriari Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legeko 51.1 artikuluan aipatzen direnen artetik bidezko den zergako tasa orokorra aplikatuko zaio.

2. Beste kooperatibei Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legeko 51.1 artikuluan aipatzen direnen artetik bidezko den zergako tasa orokorra aplikatuko zaie.

3. Likidazio-oinarri positibo edo negatiboari aurreko zenbakietan aipatzen diren karga-tasak aplikatzearen ondoriozko kopuruen batura algebrakoa kuota osotzat joko da positiboaren denean”.

Lau. 24. artikulua, bigarren paragrafoa.

“Kasu horretan, egindako erregularizazioaren ondoriozko pasiboko kontuaren saldoa ezin izanen da erabili kontu hori egiaztatzen ez den bitartean edo Sozietateen gaineko Zerga kudeatzeko eskumena duen Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzuan erregularizatutako balantzea aurkezten denetik urtebeteko epean, eguneratzea baimentzen duen arauak bestelakoa ezarri edo xedatu ezean”.

Bost. 30.b) artikulua.

“b) Sozietateen gaineko zerga.

Zerga ordaintzetik salbuestea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen VII. tituluko IX. kapituluaren ezarritako baldintzetan”.

Sei. 37. artikulua.

“37. artikulua. Karga-tasak

Aurreko artikuluan aipatzen diren kreditu kooperatiba babestuei honako karga-tasak aplikatuko zaizkie sozietateen gaineko zergan:

1. Kooperatiben emaitzei dagokien likidazio-oinarriari ehuneko 25eko tasa aplikatuko zaio. Ondorio horietarako, II. tituluko I. kapituluaren 3. sekzioan adierazitakoez gain, 36.2.b) artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren eragiketetan jatorria dutenak ere kooperatibaren emaitzak izanen dira.

2. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokien likidazio-oinarriari ehuneko 25eko tasa aplikatuko zaio. Emaitza horiek bereizirik kontabilizatu behar dira”.

Zazpi. Bederatzigarren xedapen gehigarria.

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Zerga kontsolidaziorako araubidea.

Zerga arloan eskuduna den departamentuaren titularrak behar diren arauak emanen ditu sozietate kooperatiboaren berezitasunetara egokitu daitezkeen sozietateen gaineko zergaren kontsolidazio fiskalaren araubidea arautzen duten xedapenak; hau da, Sozietateen gaineko zergari buruzko 26/1996 Foru Legearen VIII. tituluko VII. kapituluaren eta Sozietateen gaineko zergaren Erregelaren

mendua onetsi zuen abenduaren 20ko 114/2017 Foru Dekretua”.

Zortzigarren artikulua. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen Foru Legea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen agindu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. 21. artikulua, indargabetzea.

Bi. 39.5. artikulua.

“5. Ikerketa erakunde publikoek edo berrikuntza eta teknologia zentroek antzeko jarduerak egiten dituzten fundazioei diru dohaintza eginez gero, kenketa egin ahal izanen da Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 61.1 artikuluko lehenbiziko paragrafoan ezarritako kuota osoan”.

Hiru. Bosgarren xedapen gehigarria.

“Bosgarren xedapen gehigarria.

I. tituluko VII. kapituluko 1. eta 3. ataletan aurreikusitako araubidea honako hauei aplikatuko zaie:

a) Eliza Katolikoa eta Estatu Espainiarrarekin lankidetzahitzarmenak sinatuak dituzten eliza, sinesbide eta komunitate erlijiosoei.

b) Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako ekonomiari buruzko akordioaren V. artikuluko erlijio elkarte eta entitateei, baita jarraian agertzen diren lege testuetan aipatzen diren entitateei ere, baldin eta entitate horiek betetzen badituzte lege horrek irabazi-asmorik gabeko entitateei araubide hori aplikatzeko eskatzen dizkien baldintzak: Estatuaren eta Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 24/1992 Legearen 5. apartatua; Estatuaren eta Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 25/1992 Legearen 5. apartatua, eta Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoren arteko Lankidetzak Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 26/1992 Legearen 4. apartatua.

c) Espainiako Gurutze Gorriari eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari”.

Lau. “Seigarren xedapen gehigarria.

“Seigarren xedapen gehigarria.

Foru lege honen 33. eta 43. artikuluen artean (biak barne) aurreikusitako araubidea honako entitate hauei egindako dohaintzei eta horiekin sinatutako lankidetzak hitzarmenei aplikatuko zaie:

a) Foru Komunitate, Estatu, autonomia erkidego, toki entitate eta unibertsitateei.

b) Eliza Katolikoa eta Estatu Espainiarrarekin lankidetzahitzarmenak sinatuak dituzten eliza, sinesbide eta komunitate erlijiosoei.

c) Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako ekonomiari buruzko akordioaren V. artikuluko erlijio elkarte eta entitateei, baita jarraian agertzen diren lege testuetan aipatzen diren entitateei ere, baldin eta entitate horiek betetzen badituzte lege horrek irabazi-asmorik gabeko entitateei araubide hori aplikatzeko eskatzen dizkien baldintzak: Estatuaren eta Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 24/1992 Legearen 5. apartatua; Estatuaren eta Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 25/1992 Legearen 5. apartatua, eta Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoren arteko Lankidetzak Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 26/1992 Legearen 4. apartatua.

d) Espainiako Gurutze Gorriari.

e) Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari.

f) Erregelamendu bidez zehaztutako diren entitatei”.

Bost. Hamargarren xedapen gehigarria, 7. Apartatuaren azken paragrafoa.

“Bestetik, kuotako kenkaria gauzatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren araudian ezarritakoari jarraituko zaio, eta kontuan hartuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 67.4 artikuluan ezarritako mugaren ondorioetarako”.

Bederatzigarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, honela geldituko dira idatzita Nafarroako Foru Komunitatean Kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen ondoko arau hauek:

Bat. 4. artikulua, f) letra.

“f) Helbide fiskala Nafarroan izan eta jarduera artistikoak gauzatu ohi dituzten pertsona fisikoak, juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak, baldin eta haien negozio zifraren zenbateko garbia ez bada izan 200.000 eurotik gorakoa aurreko urtean.

Pertsona juridikoa sozietateen talde bateko kide bada, Merkataritzari buruzko Kodean ezarritakoaren arabera, negozio zifraren zenbateko garbia kalkulatzeko kontuan hartuko da talde osoaren zifra.

Ondorio horietarako, honakoak dira jarduera artistikoak, Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legean aurreikusitakoarekin bat:

a’) Bigarren atalean (lanbide jarduerak), 86. elkartean, 862. eta 863. taldeetan sartutakoak, pertsona fisikoak direnean.

b’) Hirugarren atalean (jarduera artistikoak), 01., 02. eta 03. elkarrekin sartutakoak, pertsona fisikoak, juridikoak edo nortasun juridikorik gabeko entitateak direnean.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera artistikoak betetzen dituzten pertsona fisikoak ez dira onuradunak izanen kasuko mezenasgo modalitateak ezkontideak, izatezko bikotekide egonkorak, hirugarren gradu arteko aurreko, ondorengo nahiz alboko ahaideek edo pertsona fisiko horrekin batera errenta esleipeneko araubideko entitate bateko kide direnek haien ztat eginak badira.

Era berean, jarduera artistikoak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo entitateak ez dira onuradun izanen jasotako mezenasgo modalitateen inguruan, jarduera artistikoa betetzen duen pertsonak edo entitateak eta dohaintza- edo ekarpen-emailea denak pertsona edo entitate lotuen izaera badute sozietateen gaineko zergaren araudiarekin bat”.

Bj. 17. artikulua, azken-aurreko lerroaldea.

“Bestetik, kuotako kenkaria gauzatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren araudian ezarritakoari jarraituko zaio, eta kontuan hartuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 67.4 artikuluan ezarritako mugaren ondorioetarako”.

Hamargarren artikulua. Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen Foru Legea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen agindu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. Tarifen lehen ataleko 251.3 epigrafearen titulua aldatzea.

“251.3 epigrafea. Produktu kimiko inorganikoak fabrikatzea (industriako gasen fabrikazioa barne, gas konprimituak izan ezik)”.

Bj. 251.3 epigrafearen oharra aldatzea.

“Oharra: epigrafe horren barnean sartzen da azido sulfurikoa eta horren deribatuak lortzea (anhidrido sulfurikoa eta horren deribatuak, kobro sulfatoa, aluminio sulfatoa, karbono sulfurikoa, sodio sulfatoa eta sodio sulfurikoa, sufre sublimatuak, errefinatuak eta prezipitatuak, etab.); industriako gasak fabrikatzea, likidoak zein gaseosoak (gas konprimituak izan ezik; gas konprimituzat jotzen dira egoera likidoan edo gaseosoan fabrikatu ondoren 150 bar-etik gorako presioan biltegitzen direnak); elektrokimika; kaltzio karburua lortzea; fosforoa, kaltzioa, arsenikoa, zianuroa, bromoa, iodoa lortzea; azido inorganikoak; baseak, hidroxidoak eta peroxidoak; metalezkoak ez diren haluroak; gatzak eta oinarritzko beste produktu kimiko inorganiko batzuk eta isotopo erradiaktiboak lortzea”.

Hiru. Tarifen lehen ataleko 253.1 epigrafearen titulua aldatzea.

“253.1 epigrafea. Gas konprimituak eta anhidrido karboniko solidotua (izotz lehorra) fabrikatzea”.

Lau. 253.1 epigrafearen oharra aldatzea.

“Oharra: gas konprimituzat jotzen da 253.1 epigrafearen pean egonda 150 bar-etik gorako presioan biltegitzen den industriako edozein gas”.

Bost. Tarifen lehen ataleko 847. multzoa aldatzea eta 3. oharra kentzea.

Sei. Jarraibidea aldatzea (II. eranskina). Jarraibidearen 4.2 arauan I) letra gehitzea.

“I) Arau honen 4. apartatuan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, tarifen edozein errubrikak ahalmena ematen die subjektu pasiboek beren bezeroei eskudirua ateratzea eta erositako ondasun edo zerbitzuengatik ordaintzea batzen dituen zerbitzu

a) Produktuen salmenta eta erakusketarako azalera erabilgarria. Azaleratzat hartzen da produktuak erakusteko eskuarki edo aldi baterako erabiltzen dena, bai eta jendea pasatzeko tokiak eta produktuak aurkeztu, eman eta kobratzekoak ere. Ez dira azalera erabilgarritzat hartuko, inola ere, bulegoak, aparkalekuak, jendeak bisita ez ditzakeen zamalanetarako eremuak eta biltegiak, eta, orokorrean, jendearen sarrera murriztuta duten leku guztiak.

Produktuen salmenta eta erakusketarako azalera erabilgarria kalkulatzeko, kontuan hartuko dira merkataritzako jarduera guztiak, bai eta aisialdi, ostalaritza eta ikuskizunetako enpresek emandako zerbitzuak ere.

Kontzeptu hori murriztuta kontatuko da, 2.000 metro koadroko azalera salbuetsirik.

b) Aparkalekuetarako azalera. Aparkalekuetarako azaleratzat hartzen da ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen dena, edozein dela erabilerarako gaitzen duen titulu juridikoa, saltoki handiko erosleak edo langileen zerbitzuan dagoena, dela salgaien zamalanak egiteko ibilgailuek erabiltzeko dena, estali gabekoa edo estalia izan, eta barne hartuta ibilgailuak eta pertsonak ibiltzeko eremuak, kontrolerako guneak eta zerbitzuarekin lotutako beste edozein.

Ondorio horietarako, aparkalekuetako azalera zein den jakiteko, arau hauek aplikatuko dira:

Lehena. Beren aparkalekua duten edo beste saltoki batzuekin batera aparkaleku komuna duten saltokien kasuan, berariaz eta frogatzeko moduan adierazita baldin badago saltoki bakoitzak aparkalekuetan zenbat toki duen, toki horien azalera erreala hartuko da aintzat.

Bigarrena. Aparkalekuetarako eremu komuna duten saltokien kasuan, saltoki bakoitzari dagozkion tokiak zenbat diren berariaz adierazirik ez dagoenean, edo toki horiek bereizirik edo banaka seinaleztaturik ez daudenean, saltoki bakoitzari esleituko zaion aparkalekuetako azalera izanen da produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren proportzioan dagoena.

Hirugarrena. Era berean, beren bezeroentzat beren instalazioetan aparkalekurik ez duten saltokien kasuan, aparkalekuetarako ekipamendua baldin badute horretarako propio erabiltzen diren besteren eraikinetan edo aparkaleku publiko edo pribatuetan, aurreko arauak aplikatuko dira.

Laugarrena. Aparkalekuetarako azalera berariaz adierazirik ez dagoenean, baina bai, ordea, aparkalekuko tokien kopurua, 28 metro koadroko azalera kalkulatu da toki bakoitzeko.

Edozein kasutan ere, zerga-oinarria zehazteko, aurreko arauak aplikatuta lortzen den aparkalekuetako azalera erreala hartuko da aintzat. Aparkalekuetarako gutxieneko azalera produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren ehuneko 15ekoa izanen da. Aparkalekuetarako gehieneko azalera, berriz, azalera erabilgarri horren ehuneko 75ekoa izanen da.

Kontzeptu hori murriztuta kontatuko da, 2.000 metroko azaleraren eta produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren artean dagoen aldearen proportzioan. Azkenik, 0,9ko koefiziente murriztailea aplikatuko zaio.

Zortzi. Likidazio oinarria.

Altzariak, saneamenduko artikulua, ateak eta leihoak eta brikolajeko gauzak gehienbat saltzen aritzen diren subjektu pasiboen likidazio oinarria zerga-oinarriari ehuneko 60ko murrizketa aplikatuz lortuko da.

Bederatzi. Karga-tasak.

Karga-tasa 12 eurokoa izanen da metro koadroko.

Hamar. Zerga-kuota.

1. Zerga-kuota aurreko idatz-zatiko karga-tasa likidazio-oinarriari aplikatzearen emaitza izanen da.

2. Saltokia irekitzen den urteko zerga-kuota izanen da kuotaren urteko zenbatekoa egun horretatik urtea amaitu arte dauden egunen kopuruz hainbanatuta ateratzen den emaitza.

3. Saltokia ixten den urteko zerga-kuota izanen da kuotaren urteko zenbatekoa zergaldiaren hasieratik ixten den egunera arte dauden egunen kopuruz hainbanatuta ateratzen den emaitza.

4. Zergaren likidaziorako oinarri diren elementuetan aldaketak gertatu diren urte naturalari dagokion zerga-kuota hauxe izanen da: aldaketaren eragina zenbat egunez izan duten, aldatutako elementuak kopuru horrekin hainbanatuta ateratzen den emaitza.

Hamaika. Zergaldia eta sortzapena.

1. Idatz-zati honetan xedatutakoa ukatu gabe, zergaldia bat dator urte naturalarekin, eta zerga urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da. Saltokia urtarrilaren 1aren ondotik irekitzen bada, zerga saltokia irekitzen den egunean sortuko da.

2. Saltokia urtarrilaren 1aren ondotik irekitzen bada, zergaldia kontatuko da saltokia irekitzen den egunetik urte bereko abenduaren 31ra arte.

3. Saltokia ixten bada, zergaldia urtarrilaren 1etik saltokia ixten den egunera artekoa izanen da.

Hamabi. Kontrola eta ikuskapena.

Zerga kudeatzea eta haren gaineko ikuskapenak egitea Nafarroako Zerga Ogasunari dagokio.

Hamahiru. Betebehar formalak eta laguntzeko betebeharra.

1. Subjektu pasiboak beharturik egonen dira zerga honen aitortpena aurkeztera, bai eta zerga zorra zehaztera eta zerga arloan eskuduna den departamentuaren titularrak foru agindu bidez ezartzen dituen tokian, moduan eta epean ordaintzera ere.

2. Nafarroako Zerga Ogasunak beste administrazioei eskatu ahal izanen die zergaren likidaziorako behar dituen datuak eta aurrekariak jakinarazteko.

Hamalau. Erregelamendugintzarako gaikuntza.

Zerga arloan eskuduna den departamentuaren titularrari egindako erregelamenduzko gaikuntza

ukatu gabe, Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio artikulua honetan xedatutakoa garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko”.

Hamabigarren artikulua. Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea.

Ondorioak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeko ondoko artikuluek honako testua izanen dute:

Bat. 1.4 artikulua, b) letra aldatzea eta c) letra gehitzea.

“b) Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera Ofizialeko baliabide iraunkorrei, beren legedi berariazkoa izanen baitute.

c) Kontratu publikoen legediaren arabera erabiltzaileek obra erabiltzeagatik edo zerbitzua emateagatik obra eta zerbitzuen emakidadunei ordaintzen dizkieten tarifei, zergaz besteko ondare prestazio publikoak baitira”.

Bj. 35. artikulua.

"35. artikulua. Tarifak

Tarifa hauen arabera exijituko da tasa:

KONTZEPTUA	Eurotan
1.-Tarifa orokorra	60,00
2.-Aurrez ezarritako tarifa	
2.1. Jarduera sailkatuaren udal lizentziari buruzko iragarkiak (ordainaldi bakarra, lizentzia ematean)	50,00
2.2. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea betetzeko argitaratu beharreko iragarkiak (ordainaldi bakarra araudiaren behin betiko onespenerekin eta, bidezkoa bada, argitalpenarekin)	80,00

Osagarriak:

TAULAK	Eurotan
Orrialde osoa	60,00
Orrialde erdia	30,00
IRUDIAK	Eurotan
Edozein neurri	30,00
ERANSKINAK PDFan	60,00"

Hiru. 39. artikulua.

"39. artikulua. Tarifak.

	Eurotan	
1. TARIFA	Elkarteen eta federazioen erregistroa	
	1. Eraketa inskribatzea	12,00
	2. Estatutuen aldaketa edo entitatearen indarreko araudirako egokitzapena inskribatzea	6,00
	3. Bestelako inskripzioak	4,00
	4. Ziurtagiriak luzatzea	8,00
2. TARIFA	Fundazioen erregistroa	
	1. Eraketa inskribatzea	53,00
	2. Estatutuen aldaketa edo fundazioaren amaiera inskribatzea	
	3. Bestelako inskripzioak	38,00
	4. Ziurtagiriak luzatzea	8,00
3. TARIFA	Lanbide elkargoen erregistroa	
	1. Lanbide elkargoen eraketaren inskripzioa	53,00
	2. Bat-egitea, xurgapena, izen-aldaketa edo desegitea inskribatzea	38,00
	3. Estatutuen aldaketa inskribatzea	38,00
	4. Bestelako inskripzioa	23,00
	5. Ziurtagiriak luzatzea	8,00"

Lau. 51. artikulua.

"51. artikulua. Tarifak

Tarifa hauen arabera exijituko da tasa:

	Eurotan
Nafarroako Foruzaingoaren zerbitzuen eta jardueren eratorria	
1. Nafarroako kirol federazioen egutegietatik kanpo egiten diren kirol probetako zaintza, segurtasuna eta segizioa, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan	
1.1. Txirrindu lasterketak, etapa bakoitzeko: Kategoriak	
a) Eskolak	112,44
b) Kadeteak	379,77
c) Juniorrak	454,02
d) 23z behekoak	493,27
e) Elitea	530,40
f) Masterrak	530,40
g) Beteranoak	493,27
h) Emakumeak	454,02
i) Profesionalak	1.062,92
j) Ziklokirolariak	493,27
1.2. Beste kirol proba batzuk	225,95
2. Zaintza, segurtasuna eta segizioa zikloturisten ibilaldietan eta eremu publikoetan egiten diren beste jardura batzuetan	189,88
3. Beren ezaugarri teknikoengatik edo daramaten zamarengatik, baimendutako gehieneko masa eta neurriak gainditu edo erregelamenduz ezarritako gutxieneko abiadurara iristen ez diren ibilgailuak eskolatu eta kontrolatzea eta haien zirkulazioa antolatzea	32,00 orduan foruzain bakoitzeko
4. Ibilgailuak eremu publikotik kentzea	
a) Bizikletak, ziklomotorrak	22,28
b) Motozikletak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak	29,70
c) Automobilak, turismoak, kamionetak, furgoiak, etab., 2.000 kg bitarteko tarakoak	59,40
d) Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak, 2.000 kg baino gehiagoko tarakoak	90,17
5. Ibilgailuak gordelekuetan edukitzea, hara eraman eta 12 orduetik aurrera, eguneko	
a) Bizikletak, ziklomotorrak	2,12
b) Motozikletak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak	5,30
c) Automobilak, turismoak, kamionetak, furgoiak, etab., 1.000 kg bitarteko tarakoak	9,55
d) Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak, 1.000 kg baino gehiagoko tarakoak	22,28
6. Foruzaingoak ematen dituen txostenak	45,61
7. Trafiko zirkulazioa arautzea, bideen aprobetxamendu sozio-ekonomikoaren ondorioz:	26,52 orduan foruzain bakoitzeko

		Eurotan
	Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan arautzen diren zirkulazio baimen osagarriak ematea	
2. TARIFA	1. Zirkulazio baimen osagarria, hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	16,50
	2. Zirkulazio baimen osagarria, hiru hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	33,00
	3. Zirkulazio baimen osagarria, sei hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	61,00
	4. Zirkulazio baimen osagarria, urtebeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	110,00
	5. Zirkulazio baimen osagarri generikoa, orokorra eta berariazkoa, ibilgailu autopropulstuetarako (garabiak, etab.), ibilgailu motordun bakarrerako, bi urtez ibiltzeko Nafarroako errepideen katalogoko errepide guztietan	198,00
	6. Zirkulazio baimen osagarria, sei hilabeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako	26,50
	7. Kudeaketa eta bitartekotza lanak nekazaritzako kooperatibekin, kideen ibilgailu motordunetarako zirkulazio baimen osagarriak lortzeko	410,00
	8. Zirkulazio baimen osagarria urtebeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako, nekazaritzako kooperatibetako titularrentzat, alde aurretik kooperatibak kudeatu duena	11,00
	9. Emandako zirkulazio baimen osagarriaren titularraren edo matrikula aldatzea	11,00
3. TARIFA	Bideen erabilera sozioekonomikorako eskaerak	45,20

Bost. 51. bis 1., 2., 5. eta 6. artikulua.

“1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea dira Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren jarduketak edo esku-hartzeak, bai interesdunek eskatzen dituztenean bai ofizios denean segurtasun arrazoiak direla-eta, betiere zerbitzua emateak subjektu pasiboari onura ekartzen badio, ondoko kasuetan:

a) Errepide, trenbide, aire edo uretako istripuak.

b) Lankidetzak teknikoak:

Lehena. Ura xukatzea.

Bigarrena. Galtzada garbitzea.

Hirugarrena. Ateak irekitzea. Zerbitzu hori ez da eginen, pertsona edo ondasunentzako arriskurik egon ezean; kasu horretan, suteak saihestu edo itzaltzeko esku-hartzetat edo salbamenduetzat joko da. Zerbitzua eman ondoren, horretan esku hartu duten langileek egiaztatzen badute gorabeherak ez duela arriskurik ekarri pertsona edo ondasunentzat, dagokion tasa eskatuko da.

Laugarrena. Ura garraiatzea.

Bosgarrena. Alarmak, gailu elektrikoak eta gas edo ur instalazioak deskonektatzea.

Seigarrena. Eraikinen barneko edo kanpoko elementuetan esku hartzea, fatxaden saneamen-

dua, publizitate errotuluak, alarmak, igogailuak eta antzeko beste elementu batzuk barne.

Zazpigarrena. Ingurumenerako kaltegarriak diren substantziak isurtzea.

c) Miaketak, erreskateak edo salbamenduak, honako kasu hauetan:

Lehena. Ukitutako pertsonak eguraldi txarraren alertari edo iragarpenari buruzko abisu buletin edo parteei (maila laranja, gorria edo baliokidea), zerbitzu ofizial eskudunek egindakoei, kasu egin ez dienean.

Bigarrena. Toki arriskutsuetan edo bertara iristeko zailak direnetan, onuradunak zuhurtzariarik gabe edo ausartegi jokatzearen ondorio denean.

Hirugarrena. Jarduketa eremu arriskutsuetan edo sarrera debekatua edo mugatua dutenetan gauzatzen denean.

Laugarrena. Antolatzen diren eta pertsonentzat arriskutsuak diren jolas eta kirol jardueren barnean egiten denean.

Bosgarrena. Ukitutako pertsonen jarduerarako egokia den ekiporik erabiltzen ez dutenean.

Seigarrena. Identifikatzeko moduko jabea duten animaliak ukitzen dituztenean.

Zazpigarrena. Objektiboki justifikatuta dagoen arrazoirik egon gabe zerbitzua eskatzen denean,

baita arriskua dagoelako simulazioa dagoenean ere.

d) Esku-hartzeak, honelakoetan: eraikinak edo instalazioak osoki edo neurri batean hondoratzea, eraikin-hondakinak, eraispenak, uholdeak eta antzekoak.

e) Prebentzio zerbitzuak:

Lehena. Lankidetzak teknikoak, prebentziokoak eta zaintzakoak, eta sutearen arriskurako edo kirol proba eta jai, kultura edo aisia jardueretako istripuetarako babesa.

Bigarrena. Suteen kontra babesteko instalazioen berrikuspena.

f) Prestakuntza praktikak, baldin eta irabazi-asmao duten jardueretatik badatoz; honako hauek daude horien barnean:

Lehena. Langileentzako prestakuntza eta praktika ikastaroak, enpresa, sozietate edo partikularrei eta, oro har, hirugarrenei emandakoak.

Bigarrena. Enpresa pribatuetan edo hirugarrenentzat lehen esku-hartzeko lantaldeak trebatzea.

Hirugarrena. Kalitate sistemak edo antzeko prozesuak egiaztatzea dakarten simulazioetan parte hartzea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren zergadunak dira zerga egitatea den jarduketa edo esku-hartzeagatik pertsonalki edo beren ondasunetan onura hartzen duten entitateak, erakundeak edo pertsona fisikoak edo juridikoak.

Halaber, tasa horren subjektu pasiboak dira tasa horri lotutako zerbitzuak ematea eragin duten kirol, jai, kultura edo aisia jarduerak antolatzen dituztenak. Kasu horretan, tasa ordaintzearen erantzule subsidiarioak izanen dira aurreko paragrafoan adierazitako subjektu pasiboak.

Zerbitzuaren onuradun bat baino gehiago bada, tasa proportzionalki egotziko da, kontuan hartuz haietako bakoitzaren alde egindako lanetan erabilitako baliabideak, betiere txosten teknikoan oinarrituta, eta horrela banan-banan bereiztea ezinezkoa bada, parte berdina egotziko zaio bakoitzari.

Nolanahi ere, arriskua dagoelako simulazioa egiten denean, subjektu pasibotzat joko da simulazio horren erantzulea.

Subjektu pasiboak kontratatuta badu tasa honen xede diren kasuak estaltzen dituen aseguru-poliza bat, aseguru entitateak edo sozietateak ordeztuko subjektu pasiboak izanen dira”.

"5. Tarifa.

a) Tasaren zenbatekoa honako zenbatekoen arabera zehaztuko da:

		euro
1. Esku-hartzea, aritutako pertsona bakoitzeko (Zenbatekoa orduko edo zatikiko)		35,00
2. Ibilgailuen esku-hartzea (Zenbatekoa orduko edo zatikiko)	Autoeskala edo ibilgailu berezia (PMA, kimikoa, lantegia...)	250,00
	AutoPONPA-tankea-anbulantzia	100,00
	Furgoia, autoa edo lur orotako ibilgailuak	35,00
	Motoponpa, elektroponpa, multzo hidraulikoa	15,00
	Txalupa motorduna	35,00
Parketik irteten denetik itzuli arte egindako kilometro bakoitzeko, 0.80 ordainduko da kilometroko		
3. Aireko baliabideen esku-hartzea (orduko edo zatikiko)	Osasun garraioko helikopteroa.	1.800,00
	Salbamendurako helikopteroa	1.400,00
4. Baliabide materialak	Arnasketa autonomoko ERA ekipoen erabilera (unitatea)	15,00
	Apar-hautseko 10 litroko	80,00
	Diluituan erabiltzeko koipegabetzailea (litroa)	1,50
	Xurgatzailea (zakua)	15,00
	Beso teleskopikoa (eguneko edo zatikiko)	10,00
	Trakzio-konpresiorako beso egonkortzailea (eguneko edo zatikiko)	25,00
	Gas askotako detektagailua, esplozio-neurgailua (neurketako)	20,00
	Barrera xurgatzaileak (unitatea)	275,00
	Su-itxalgailua (unitatea)	25,00
	Motozerrak, edo egurra edo metala mozteko ekipoa (orduko edo zatikiko)	60,00
	Murgiltzeko ekipamendu osoa	15,00
5. Ateak irekitzea	Aurreko epigrafeak aplikatetik datorrena, baina esku-hartzearen gutxieneko kuota 170 eurokoa izanen da.	
6. Gastu orokorrak	Langileen ekipoen narriaduragatik eta zerbitzu orokorregatik % 5 gehituko da guztira fakturatutako zenbatekoa	
7. Gorabeherak gai arriskutsuekin	Aplikatu beharreko lege xedapenek onartzen ez dituzten kantitate edo egoeretan substantzia toxikoak, sukoiak, leherkorak eta abar dituzten gorabeheretan, dena delako tarifa % 100 gehituko da	
8. Hirugarrenentzako prestakuntza ikastaroak	Ikasleko, egunean	25,00
	Ikastaroko instruktoreko, orduko edo zatikiko	70,00

b) Zerga-egitatea eratzten duen prestazioa amaiturik, eskuduna den organoak tasaren likidazioa igorriko du, bertan zehazturik zenbat denbora eta baliabide erabili diren eta zein den haren zenbatekoa, atal honetan ezarritako tarifaren arabera.

6. Salbuespenak.

1. ataleko b), c) eta d) letretako zerbitzuak salbuetsita daude tasa ordaintzetik, baldin eta zerbitzuaren eskaera edo prestazioa egiten bada onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, edo arrazoi ustekabeengatik edo saihestezinengatik.

Salbuespen hori ezin da aplikatu, inolaz ere, baldin eta aplikatu beharreko indarreko araudia betetzen ez bada, edo eraikuntzek egiturazko kalteak badituzte, higiezina behar bezala ez mantentzeagatik eta ez kontserbatzeagatik sortuak”.

Sei. VII. titulua, errubrika, eta V. kapitulua gehitzea.

“VII. TITULUA. Eskubide sozialetako departamentuaren tasak”

“V. kapitulua. Desgaitasuna egiaztatzen duen txartelaren kopia egiteagatik tasa.

79.bis artikulua. Desgaitasuna egiaztatzen duen txartelaren kopia egiteagatik tasa.

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da desgaitasuna egiaztatzen duen txartelaren kopia egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Txartel horren kopia egiteko eskaera aurkezten duten pertsona fisikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

3. Sortzapena.

Txartela egiteko eskaera aurkeztean sortuko da tasa.

4. Tarifa.

Tarifa 5 eurokoa izanen da txartel bakoitzeko”.

Zazpi. 99. bis 1 artikulua.

“1. 99. artikuluan aurreikusitako zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie, 16 zenbakiko tarifak arautzen duen zerbitzuari izan ezik.

a) Familia ugaria:

Lehen. Katetoria bereziko familia ugarietako kideentzako salbuespena.

Bigarrena. % 50eko hobaria katetoria orokorreko familia ugarietako kideentzat.

b) Ekintza terroristen biktimenzako salbuespena, baita haien ezkontide eta seme-alabentzako ere.

c) Genero indarkeriako ekintzen biktimenzako salbuespena, baita haien seme-alabentzako ere.

d) Desgaitasun aitortua dutenak:

Lehen. 100eko 65eko edo hortik gorako desgaitasun aitortua dutenentzako salbuespena.

Bigarrena. 100eko 50eko hobaria, 100eko 33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsonentzat”.

Zortzi. 109.1.b) artikulua.

“b) Animaliak zatikatzeko aretoetako ikuskapen eta osasun kontroletan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoak, urteko ekoizpenaren arabera.

	URTEKO EKOIZPENA	Eurotan
1. TARIFA	Urteko 240 tonako edo hortik beherako ekoizpena duten establezimenduak.	243
2. TARIFA	Urteko 240 tonatik gorako eta 2.400 tonatik beherako ekoizpena duten establezimenduak.	486
3. TARIFA	Urteko 2.400 tonako edo hortik gorako ekoizpena duten establezimenduak.	729

Bederatzi. 110. artikulua.

“110. artikulua. Esne eta esnekietako substantzien eta hondakinen kontrol eta ikerketetan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoa.

Establezimendu horiei egindako kontrol ofizialagatik aplikatu beharreko tarifa honako hau izanen da:

	URTEKO EKOIZPENA	Eurotan
1. TARIFA	Urteko 360 tonako edo hortik beherako ekoizpena duten establezimenduak.	243
2. TARIFA	Urteko 360 tonatik gorako ekoizpena duten establezimenduak.	486”

Hamar. 111. artikulua, b) letraren azken paragrafoa, c) letraren azken paragrafoa, eta d) eta e) letrak

“Kontzeptu honengatik murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 20 aplikatuko zaio kuotari”.

“Murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 10 aplikatuko zaio kuotari”.

“d) 100eko 20ko murriztapena, animalien higienerari eta ongizateari buruzko araudiaren betetze-mailaren arabera. Murriztapen hori aplikatuko da kontrol ofizialetan egiaztatzen denean aipatutako arauak bete egiten direla.

e) Murriztapena hil aurreko kontrol eta ikuskarpenak egiteagatik. Murriztapen hau aplikatzeko, jarduera horiek jatorrizko ustiatzean egin behar zaizkie hil beharreko animaliei, hiltegiaren errepikatu beharrik gabe, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 29ko 854/2004 Erregelamenduan zehaztutakoarekin bat, edo sistema bat badute abereak kontrolatu eta erregistratzeko, hiltzera heltzen direnean, modu horretan hil aurreko ikuskarpena erraztuz.

Kontzeptu honengatik murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 5eko portzentajea aplikatuko zaio kasuan kasuko espezieari dagokion kuotari”.

Hamaika. 112. artikulua.

“112. artikulua. Tasaren murriztapenak ehizakiak eraldatzeko establezimenduetan eta plazako zezenak tratatzeko aretoetan egiten diren ikuskarpen eta kontrolengatik.

Ehizakiak eraldatzeko establezimenduen eta plazako zezenak tratatzeko aretoen arduradun diren elikagai enpresek 100eko 85eko murriztapena aplikatzen ahalko dute, higienerari buruzko araudiaren betetze-mailaren arabera”.

Hamabi. 115. artikulua.

“115. artikulua. Likidazioa eta diru-sarrera.

1. Ordezko subjektu pasiboen autolikidazio sistemaren bidez ordainduko dira tasak hiltegiaren, ehizakiak eraldatzeko establezimenduetan eta plazako zezenak tratatzeko aretoetan; aurreko hiruhileko naturalean sortutako tasak hurrengo hilabetearen lehen hogeiegunetan ordaindu beharko dira.

2. Animaliak zatikatzeko aretoetan eta esne eta esnekien enpresetan tasak urtero ordainduko dira hurrengo urteko ekainean”.

Hamahiru. 115. bis 1 artikulua.

“1. Hiltegiaren eta ehizakiak eraldatzeko establezimenduetako kontrol ofizialengatik tasen subjektu pasiboak behartuta daude tasa horiei lotutako eragiketa guztien erregistro bat izatera:

a) Hildako edo eraldatutako animalien kopurua, haien zenbakia adierazita.

b) Eragiketen eguna eta ordua.

c) Animalien pisua, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ematen dituen ereduarekin bat, formatu elektronikokoak barne”.

Hamalau. 133.bis.4.5) artikulua.

“5) Beste produktu batzuk:

IZENA	Eurotan
1. Kartografiako katalogoa	9,70
2. Nafarroako atlasa (Errepideak, Turismoa eta Ingurumena)	13,00
3. Erliebezko planoen poltsa	0,20
4. Paperezko planoen poltsa	0,15”

Hamabost. 137. artikulua.

“137. artikulua. Oinarriak eta tasak.

Tasa eskatuko da ondorengo tarifetan zehazten diren oinarrien eta tasen arabera:

		Eurotan
1. TARIFA	Erregistroetan inskribatzea eta produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionalen txartelak ematea:	
	1. Honako erregistro hauetan inskribatzea: Pestiziden establezimenduen eta zerbitzuen erregistro ofiziala. <ul style="list-style-type: none"> - Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala. Horniketen eta tratamenduen sektoreak. - Hazi eta mintegiko sortzaile, merkaturatzaile eta inportatzaileen erregistroa. - Laborantzako ongarrien eta substratuen fabrikatzaileen erregistro ofiziala. 	24,00
	2. Honako erregistro hauetan inskripzioa berritzea: <ul style="list-style-type: none"> - Pestiziden establezimenduen eta zerbitzuen erregistro ofiziala. - Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala. Horniketen eta tratamenduen sektoreak. - Hazi eta mintegiko sortzaile, merkaturatzaile eta inportatzaileen erregistroa. 	14,00
	3. Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofizialaren aholkularitza sektorean inskribatzea.	12,00
	4. Produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionalen txartelak ematea eta Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofizialean inskribatzea (erabilera profesionaleko sektorea)	10,00
2. TARIFA	Nekazaritzako makineriaren erregistroetan inskribatzea eta zirkulazioko kartilla ematea traktore, motore eta bestelako nekazaritzako makineriarentzako, inportatuak nahiz fabrikazio nazionalekoak izan, berriak edo berreginak.	Prezioaren 1.000ako 2, saltzailearen fakturaren arabera, 1.803 eurotik aurrera”.

Hamasei. 138. artikulua.

“138. artikulua. Salbuespena.

Tasak ordaintzetik salbuetsirik daude Nafarroako Foru Komunitatea, Nafarroako toki entitateak, Estatua, lurraldeko gainerako ente publikoak eta horien menpeko erakunde autonomoak”.

Hamazazpi. XI. titulua. X. kapitulua gehitzea.

“X. KAPITULUA. Edukieren lekualdaketak emateagatiko tasa.

164. quater artikulua.

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da ziurtapen prozesuan dauden hazien edukiera beste autonomia

erkidego edo herrialde batzuetara lekualdatzea babesten duen ziurtagiria ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira haziak eta landareak mintegian ekoizten dituen entitate gisa erazten diren eta, haziak Foru Komunitatetik kanpo ziurtatzeko asmoz, edukiera lekualdatzeko dokumentua ematea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

3. Sortzapena.

Zerga-egitatea den zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean berean sortuko da tasa.

4. Tarifa.

Tasa tarifa hauen arabera izanen da:

		€/tona
1. TARIFA	Zerealak eta bazka landareak	0,55
2. TARIFA	Lekadunak	1,95
3. TARIFA	Koltza	1,80
4. TARIFA	Artoa	0,58
5. TARIFA	Ekilorea	2,92

Hemezortzi. XIII. titulua, errubrika. Orain arte kapitulu bakarra izan dena I. kapitulua izanen da.

“XIII. TITULUA. Kultura, kirol eta Gazteria departamentuaren tasak”

Hemeretzi. XIV. titulua kentzea. Haren I. eta II. kapituluak XIII. tituluko II. eta III. kapitulu bihurtuko dira hurrenez hurren.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Sociedad de Desarrollo de Navarra (SODENA) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen aplikazioa.

Sociedad de Desarrollo de Navarra (SODENA) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen 6. artikulua aldatu da, eta hemendik aurrera honako idazketa hau izanen du:

“6. artikulua.

1. SODENAK parte hartu ahal izanen du sortzea bultzatzen dituen sozietateen kapitalean, edo dagoeneko sortuak diren eta kapitala handiagotzen, bat egiten edo berregituratzen dutenenean, baina parte-hartzearen ehunekoa ez da inoiz izanen ehuneko 40 baino handiagoa, eta epea, gehienez ere hamabi urte izanen da.

2. SODENAK sozietate batean daukan parte-hartzea ez da inoiz izanen Sodenak inbertsioa

egiten denean dituen baliabide berekien ehuneko 25 baino handiagoa.

3. Artikulu honen 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren mugak aldatzen ahalko dira, salbuespenezko kasuetan, Nafarroako Gobernuaren berariazko onespenerekin”.

Azken xedapenetako bigarrena. Aldatu egiten da maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 56.a) artikulua.

56.a) artikulua. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“a) Urtean 12.600 eurotik beherako lan etekin osoak”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

AKATS ZUZENKETA

Zenbait akats aurkitu dira 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean, 2018ko abenduaren 22ko 159. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena. Horrenbestez, honako zuzenketa hauek egin dira:

1. 5. artikuluko 4. apartatuko b) letrak honako hau dio:

“b) 51200-520001-2269-313902 “Droga-mendekotasunaren aurkako III. Foru Plana (PFD)” izenekoak”.

Honako hau esan behar du:

“b) 520001-51200-2269-313902 “Droga-mendekotasunaren aurkako III. Foru Plana (PFD)” izenekoak”.

2. 37. artikulua, “Gehikuntza izan dezaketen kredituen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan” izenekoak, honako hau dio:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak baimena ematen ahalko du funts mugimenduak egin daitezen 54. programa multzoko aurrekontu-partiden eta gaitu beharreko partiden artean, baldin eta lehenbizikoek gehikuntza izan badezakete foru lege honen 5. artikuluko 4. apartatuko a) eta h) letretan adierazitakoaren arabera”.

Honako hau esan behar du:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak baimena ematen ahalko du funts mugimenduak egin daitezen 54. programa multzoko aurrekontu-partiden eta gaitu beharreko partiden artean, baldin eta lehenbizikoek gehikuntza izan badezakete foru lege honen 5. artikuluko 4. apartatuko a) eta i) letretan adierazitakoaren arabera”.

Iruñean, 2018ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

